



# Jurisprudentiaren hiru hileko begirada 2022ko urtarrila-martxoa

Europar Batasuneko Justizia Auzitegia (EBJA)  
Giza Eskubideen Europako Auzitegia (GEEA)

Arartekoaren Europako eta Nazioarteko  
Gaien Bulegoa  
2022ko maiatza



[www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)  
[international@ararteko.eus](mailto:international@ararteko.eus)



*Laburpen honetan, EBko Justizia Auzitegiak eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 2022ko urtarriletik martxora emandako epaiak jaso dira, Arartekoaren lan-arlo batzuetan jakingarriak izan daitezkeelakoan. Txostenean ageri dien epigrafeen sailkapena Arartekoaren lanaren egituraketaren araberkoa da. Arartekoaren Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoak epaiak hautatu eta horien laburpena egin du. Arartekoak ez du inolako erantzukizunik hartuko laburpen horien gaineko erabileragatik; ildo horretan, aipaturiko ebazpen judizialen edukirako igorpena egiten du, erabakiez zehatz-mehatz jakiteko.*



Lan hau [Creative Commons Aitortu 4.0 Nazioartekoa \(CC BY 4.0\) lizentziapean dago](#)



#### **Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko**

- [web](#) gunean
- [posta elektronikoz](#) eskatuz
- aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)

#### **ARARTEKO**

Arartekoaren Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoa  
Itzulpena: Hori Hori S.A.L.



## AURKIBIDEA

<b>I. EBren OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNARI BURUZKO EPAIAK (EBJA) ....</b>	<b>6</b>
Ogasuna .....	6
Herri-administrazioen zerbitzuko langileak/Lana .....	6
Jarduera ekonomikoaren antolamendua .....	9
<b>II. EUOPAR BATASUNeko ZUZENBIDEAREN EDUKI OROKORRAK .....</b>	<b>16</b>
Administrazio ona eta administrazio-prozedura .....	16
<b>III. ARLOKAKO EPAIAK (EBJA y GEEA) .....</b>	<b>19</b>
Herri-administrazioen zerbitzuko langileak .....	19
Kontratazio publikoa .....	22
Desgaitasunen bat duten pertsonak .....	24
Desgaitasunen bat duten pertsonak/Osasuna .....	28
Osasuna .....	29
Ingurumena .....	32
Datuak babestea .....	36
Genero-berdintasuna/Gizarte Segurantza .....	38
Espetxeratuak .....	39
Ijitoak/Etxebizitza .....	44
Genero-indarkeria .....	46
LGBTI pertsonak .....	48
Gardentasuna eta gobernantza ona .....	49
Haurrak/Atzerritarrak .....	50
Haurrak .....	51
Hirigintza .....	54
Segurtasuna .....	55
<b>IV. COVID-19arekin LOTUTAKO EPAIAK (GEEA) .....</b>	<b>57</b>
Haurrak .....	57
Espetxeratuak .....	57
Segurtasuna .....	59

## I. EBren OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNARI BURUZKO EPAIAK (EBJA)

### Ogasuna

1. [C-363-20, Marcas MC Szolgáltató Zrt. Nemzeti Adó- és Vámhivatal Fellebbviteli Igazgatósága-ren aurka](#), 2022ko urtarrilaren 13koa

- Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 51.1 artikulua (Gutunaren aplikazio-eremua)

*Sozietate bati zerga-isuna eta berandutze-interesak ezartzea, sozietateen gaineko zerga moduan behar baino gutxiago ordaintzeagatik. Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna aplikatzerik ez izatea*

Europar Batasuneko Zuzenbideak ez ditu bateratu estatu kideen araudiak, zerga-kontrolen eta, oro har, zerga-betebeharrak ez betetzeagatik ezartzen diren zehapenen arloan. BEZean iruzur egiteagatik ezarritako zehapenak eta kasu horien ikerketak Batasuneko Zuzenbidea aplikatzeko moduko kasutzat jo baziren ere, horrela zen, estatuek BEZaren diru-sarrerara guztiak jasotzea bermatzeko eginbeharra bete behar dutelako, zerga horrek areagotzen baititu Batasunaren baliabide propioak. Sozietateen gaineko zergak, ordea, ez du osatzen Europar Batasunaren baliabide propioen sistema. Hori dela eta, zerga horren arloko ikuskapen eta zehapenei buruzko arauak ezin dira hartu "Batasuneko Zuzenbidearen aplikaziotzat", Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 51.1 artikulua irenilduan. Ondorioz, Gutuna ez da aplikatzen aipatutako ikuskapen eta zehapenetan.

### Herri-administrazioen zerbitzuko langileak/Lana

1. [C-514/20, DS, Koch Personaldienstleistungen GmbH-ren aurka](#), 2022ko urtarrilaren 13koa

- Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 31. artikulua, 2. apartatua (ordaindutako oporrak urtero izateko eskubidea)
- 2003/88/EE Zuzentarauaren 7. artikulua, lanaldiaren antolamenduaren zenbait alderdiri buruzkoa

*Estatuko araudiak, aparteko orduengatik osagarri bat jasotzeko eskubidea ematen duten hileko lanorduen kopurua kalkulatzeko orduan, ez ditu aintzat hartzen urteko opor ordaindu gisa hartutako egunak*

Urteko opor ordainduak izateko eskubidea 2003/88 Zuzentarautik ondorioztatzen da zuzenean. Aipatu eskubidea Europar Batasuneko Lan Zuzenbidearen garrantzi bereziko printzipioa da, ez du salbuespenik onartzen eta, eskubidea aplikatzean,

estatuko agintariak 2003/88 Zuzentarauak esanbidez ezarritako mugak errespetatu behar dituzte beti. Era berean, esanbidez aipatzen da Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 31.2 artikuluan.

Auzi nagusian aipatutako araudi eztabaidagarria, hau da, hilean egindako aparteko orduak –osagarri bat jasotzen eskubidea ematen dutenak– kalkulatzeko orduan egindako lanorduak soilik aintzat hartzen dituen hitzarmen kolektiboa, estatuko arauditzat jotzen da, eta, beraz, 2003/88 Zuzentarauaren 7.1 artikulua aplikatzen zaio. Hortaz, Oinarrizko Eskubideen Gutuna aplika daiteke (51.1 artikulua) eta zuzentaraua Gutunaren 31.2 artikuluari jarraikiz interpretatu behar da, araudi eztabaidagarriaren aurkakoa den ala ez ebazteko. Langileek atsedenaldiri uko egitea lortzeko pizgarriak eta disuasio-jardunbideak bateraezinak dira urteko opor ordainduen helburuekin.

Auzi nagusiari bidea eman zion kasuan, araudi eztabaidagarria aplikatu ondoren, langile demandatzaileak ordainsari txikiagoa jaso zuen; hain zuzen, aparteko orduak egin zituen hilabete berean opor-egunak hartu ez balitu, ordainsari handiagoa jasoko zuen, oporrak hartu beharrean lan eginez gero, gaitutuko baitzuen aparteko orduengatiko osagarria jasotzeko beharrezkoa den ordu kopurua. Horiek horrela, aipatu araudiaren bidez lor daiteke langileak konbentzitzea aparteko orduak egiten dituzten hilabetean urteko opor ordainduetarako eskubidea erabil ez dezaten, kalkulua hilabete osoari dagokiolako. Hori dela eta, bi hauek ez dira bateragarriak: lan egindako orduak kontabilizatzeko mekanismoa, auzi nagusiko araudi eztabaidagarriak ezartzen duena bezalako; eta urteko opor ordainduak izateko eskubidea, 2003/88 Zuzentarauaren 7.1 artikuluan ezarritakoa, aipatu artikulua Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 31.2 artikuluan argitan interpretatuta.

## 2. [C-262/20, VB, Glavna direktsia Pozharna bezopasnost i zashtita na naselenieteren aurka](#), 2022ko otsailaren 24koa

- Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 20. artikulua (legearen aurrean berdintasunak izateko eskubidea)
- Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 31. artikulua (lan-baldintza zuzen eta bidezkoak izateko eskubidea)
- 2003/88/EE Zuzentarauaren 8. eta 12. artikulua, a) letra, lanaldiaren antolamenduaren zenbait alderdiri buruzkoa

*Suhiltzaileen kidegoko langile baten gaueko lanorduen zenbaketa eta ordaintzeko modua. Sektore publikoko eta sektore pribatuko langileen artean tratu-bereizketak egitea, gaueko lanaren iraupenari dagokionez; izan ere, sektore pribatuko langileen kasuan, gaueko lanaren ohiko iraupena mugatu egin da, langile publikoen kasuan ez bezala*

Gaueko lanaren iraupena ezartzen duten estatuko Zuzenbideko xedapenak 2003/88 Zuzentarauaren aplikazio bat dira, eta, hortaz, Europar Batasuneko Zuzenbidearen aplikazio-eremuaren barruan daude, zuzentarauaren transposizio-araudia ez badira ere. Hortaz, Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 51.1 artikulua betez, Gutuna aplikatu ahal izango da xedapen horietan aipatzen diren egoeretan.

Gutunaren 20. artikulua legearen aurreko berdintasunerako eskubidea ezartzen du; horren arabera, konpara daitezkeen egoerak ez dira desberdin tratatu behar, horrela jokatzeko bidezko justifikazio objektibo eta egoki bat dagoenean izan ezik. EBJAK deklaratu du zerbitzu-harreman bat funtzionarioena edo langileena izatean oinarrituta dagoen tratu-bereizketa bat garrantzitsua izan daitekeela tratu berdina jasotzeko eskubidearen ondorioetarako. Bestalde, Gutunaren 31. artikulua "langile oro" aipatzen du, ematen dituen eskubideen subjektu gisa.

Berdintasun-judizioa egiterakoan, jokoan dauden egoeren modu espezifikoak eta konkretuan antzeman behar da, kontuan hartuta egoera horien ezaugarri diren elementu guztiak eta, bereziki, bereizketa ezartzen duen estatuko araudiaren xedea eta asmoa, baita bere eremuko helburu eta printzipioak ere. Kasu honetan, identifikatu beharko lirateke pareka daitezkeen egoeretan dauden pertsonen kategoria zehatzak, eta horiek modu espezifiko eta konkretu batean erkatu, gaueko lanaren baldintzak aintzat hartuta.

Egon daitezkeen tratu-bereizketaren justifikazioari dagokionez, hautemango da, diferentzia hori lege onartzeko moduko helburu bati lotuta badago, helburu hori bete nahi bada eta horretarako ezarri bada. Ondorio horietarako, aurrekontu-gogoetak berez ezin dira interes orokorreko helburu bihurtu.

Estatuko organo juridikzionaleri dagokie kasuari dagozkion oharrak egitea. Edonola ere, Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 20. eta 31. artikuluek ez dute trabarik jartzen gaueko lanaren ohiko iraupena –sektore pribatuko langileei dagokiena– sektore publikoko langileen kasuan ez aplikatzeko, baldin eta bereizketa hori irizpide objektibo eta arrazoizko batean oinarrituta badago.

Langileen eskubidea –lanean eman beharreko gehieneko denbora mugatzeko eta atsedenaldiak izateko– garrantzi bereziko araua da Europar Batasuneko Lan Zuzenbidean eta Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 31.2 artikuluan dago jasota. 2003/88 Zuzentarauaren xedapenek eskubide hori zehazten dute eta, beraz, Gutunaren argitan interpretatu behar dira. Hori dela eta, xedapenak ez dira modu murriztailean interpretatu behar.

Zuzentarauaren 2.3 artikulua honela definitzen du gualdia: gutxienez 7 orduko aldia, kasu guztietan 00:00etatik 05:00etara bitarteko orduak barnean hartzen dituen. Gaueko langilea da ohikotasunez bere eguneroko lanaldian hiru ordu baino gehiago gauez egiten duena. Ustez urteko lanaldiaren zati jakin bat –legediak, akordioak edo hitzarmen kolektiboak ezarritakoa– gauez egin dezakeena ere jotzen da gaueko langiletzat.



Zuzentarauaren 8. artikulua gaueko lanaren gehieneko iraupena finkatu beharra ezartzen du; 12. artikulua, aldiz, txandaka lan egiten duten langileek babes maila egokia eta egokitua izatea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea behartzen du. Hori dela eta, neurri konkretuak erabakitzeko tarte bat uzten diete estatuei. Zuzentarauak ez du behartzen gaueko lanaren ohiko eta gehieneko iraupena mugatzera, ezta eguneko lanaren iraupena kontuan hartuta egitera; hala ere, gaueko lanaren iraupenak mugatuta egon beharko du Zuzentarauaren 8. artikulua araberan. Gaueko lanaren ohiko iraupena –eguneko lanaren aldean– laburragoa izatea neurri egokia izan daiteke gaueko langileen osasuna eta segurtasuna babesteko, lan horren nekagarritasun handiagoa kontuan hartuta; hala ere, ez da neurri bakarra. Beste batzuk ere egon daitezke, hala nola atsedaldi eta aisialdi gehigarriak ematea. Gainera, gaueko langileek beste babes-neurri batzuk izan beharko dituzte: lanaren iraupena, soldata, berariazko ordainsariak eta antzeko onurak, beren lanaren nekagarritasun berezia konpentsatu ahal izateko.

### Jarduera ekonomikoaren antolamendua

#### 1. [C-234/20, Sātiņi-S SIA](#), 2022ko urtarrilaren 27koa

- Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 17. artikulua (jabetza-eskubidea)
- Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 51.1 artikulua (Gutunaren aplikazio-eremua)

*Auzi nagusian demandatzailea den enpresak erositako landare produktibo jakin bat Natura 2000 kontserbazio-zona batean landatzeko debekuaren ondoriozko kalte-ordaina ukatzea. Enpresa eskuratzailerak bertan landatzea debekatuta zegoela jakin zuen lurra erosteko unean.*

Estatu kideek Batasuneko Zuzenbidea aplikatzen dute, Gutunaren 51.1 artikulua erabiliz, habitat naturalak mantentzea edo lehengoratzzea bermatzeko eta kontserbazio bereziko eremuetan habitat horiek hondatzea saihesteko neurri egokiak abian hartzen dituztenean, habitatei buruzko Zuzentarauaren 6.2 artikuluari jarraikiz. Era berean, hegaztiei eta habitatei buruzko zuzentarauetan jasotako neurriek eragina dute eremu horietan dauden ondasun higiezinak jabeak diren pertsonen jabetza-eskubideetan (Gutunaren 17. artikulua). Hori dela eta, estatuek Natura 2000ren eta Uraren Esparru Zuzentarauaren babespean eta 1305/2013 Erregelamenduaren 30.1 artikulua aplikaturik ordainketak aitortzen dituzten araubideak ezartzen dituztenean, Batasuneko Zuzenbidea aplikatzen ari dira, Gutunaren 51.1 artikulua zentzuan. Egia da aipatu 30.1 artikulua interpretaziorako tarte bat uzten diela estatu kideei, zer neurri hartu erabaki dezaten; hala ere, estatu kide bat interpretatzeko gaitasunaz –Batasuneko Zuzenbideko egintza batek eman diona– baliatzen denean, Zuzenbide hori aplikatzen duela jo behar da, Gutunaren 51.1 artikulua ondoz ondo. Estatuak konpentsazio-erregimen bat aurreikusteko betebeharririk ez badute ere,

horrek ez du esan nahi Gutunaren 17. artikulua aplikatu ezin daitekeenik. Batasuneko Zuzenbideko printzipio orokorrak ere aplikagarriak dira.

Gutunaren 17. artikulua kalte-ordaina jasotzeko eskubide bat bakarrik aitortzen du esanbidez: jabetza-eskubidea kentzen denean. Landare produktibo jakin bat landatzeko ezarritako murrizketa ez da eskubide bat kentzea, erabilera mugatzea baizik, legez arautu daitekeena interes orokorrerako beharrezkoa den heinean (Gutunaren 17.1 artikulua, hirugarren esaldia). Gainera, jabetza-eskubidea ez da absolutua: baliatzea muga daiteke, Batasunak onartzen dituen interes orokorreko arrazoi justifikatuak izanez gero. Murrizketek benetan bat etorri beharko dute helburu horiekin, bermatutako eskubidearen muinari eragin gabe (Gutunaren 52.1 artikulua). Ingurumena babestea murrizketak justifika ditzaketen interes orokorreko helburuetako bat da.

Kasu honetan, EBJAren iritziz, landare produktibo jak bat landatzeko debekua, eremua babestea bermatzeko, ez da eskubidearen mamiari eragiten dion murrizketa bat; batez ere, enpresak bazuelako murrizketa horren berri, lurra erosi zuenean. Horrez gain, Batasuneko Zuzenbidetik ez da ondorioztatzen estatuak kalte-ordaina eman behar duenik. Hori dela eta, ez da urratu Gutunaren 17. artikulua.

Ikus, era berean, auzi honetan emandako epaia: [C-238/20, Sātiņi-S SIA](#), 2022ko urtarrilaren 27koa, ondorio berdinekin, Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 51.1 eta 17. artikuluei dagokienez. Kasu horretan, kalte-ordaina hegaztiekin eta babestutako beste animalia batzuekin akuikulturan eragindako kalteen balioa baino txikiagoa izatea zen auzi nagusiaren gaia.

2. [C-306-19, C-512/19, C-595/19 eta C-611/20, guztiak batera, Milis Energy SpA eta beste batzuk, Presidenza del Consiglio dei Ministri eta beste batzuen aurka](#), 2022ko martxoaren 1ekoa

- Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 16. artikulua (Enpresa-askatasunerako eskubidea)
- Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 17. artikulua (jabetza-eskubidea)
- 2009/28/EE Zuzentaraua, iturri berriztagarrietatik datorren energiaren erabilera sustatzeari buruzkoa

*Lege-xedapen batzuk gauzatzeari buruzko dekretuak; hain zuzen, elektrizitatea instalazio fotovoltaikoetan sortzeko pizgarri ekonomikoak eta dagozkion ordainketa-modalitateak –sektoreko enpresek eta agintari publiko eskudunek lehenago adostu dituzten hitzarmenetako baldintzak enpresen kalterako (pizgarri txikiagoak ordaintzea edo ordainketa atzeratzea) aldatzen dituztenak– berrikustea aurreikusten duten xedapenak dira*

2009/28 Zuzentarauaren 3.3.a) artikulua interpretaziorako tarte zabala uzten die estatuei, energia berriztagarriak sustatzeko neurriei dagokienez. Izan ere, ez die ezartzen inolako betebeharririk dirulaguntzak edo laguntzak ezartzeko eta aukera ematen die sustapen-erregimenak aldatu edo ezabatzeko, baldin eta zuzentarauak ezartzen dituen helburuak lortzen badituzte. Horrez gain, Batasuneko Zuzenbidea betez neurriak hartzerakoan Zuzenbide horren printzipio orokorrak errespetatu beharko dituzte; besteak beste, segurtasun juridikoaren eta bidezko konfiantzaren printzipioak.

Legedi eztabaidagarriak 2009/28 Zuzentarauaren eta beste batzuen transposizioa egiteko balio duenez, Batasuneko Zuzenbidearen aplikazio-eremuan sartzen da, EBko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 51. artikulua zentzuan. Horiek horrela, estatuek transposizioa egitean erabil dezaketen interpretazio-tartea edozein dela ere, Gutunean ezarritako eskubideak errespetatu beharko dituzte (kasu honetan, Gutunaren 16. eta 17. artikulua).

17.1 artikulua lege barruan eskuratu dituen ondasunen jabetzaz gozatzeko eskubidea ezartzen du, baita ondasun horiek kentzeko debekua ere, legean jasotako kasuetan eta baldintzetan izan ezik, kalte-ordaina emanda. Babes hori ondare-balioko eskubideei bakarrik dagokie; eskubide horietatik ondorioztatzen da eskuratutako egoera juridikoa, eskubidearen titularrak eskubidea autonomiaz eta bere mesedetan erabiltzea ahalbidetzen duena. Dirulaguntza-sistema batean emandako pizgarri ekonomikoak, oraindik ordaindu ez badira ere banakako hitzarmenak betez zehaztuta badaude, ondare-interesak dira. Hala ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziari jarraikiz (aplikagarria da, Gutunaren 17. artikulua aplikazio-eremua zehazteko, Gutunaren 52.3 artikuluko klausula interpretatiboa betez), jasoko den diru-sarrera bat 17. artikulua bidez babestuta izango da, baldin eta dagoeneko sortu bada, kreditu seguru baten xedea bada edo berariazko inguruabarrek hura jasotzean interesatuta dagoenaren bidezko konfiantza oinarritzea ahalbidetzen badute.

Bere interesei eragiten dieten neurriak hartzea aurreikusteko gai den eragile ekonomiko batek ezin du bidezko konfiantzaren printzipioa argudio gisa aipatu, neurri horiek azkenean hartzen badira (adibidez, indarrean dauden lege-xedapenek aldaketak egiteko aukera dagoeneko iragarri badute edo ondoko aplikazio-arauak aipatzen badituzte). Gainera, eragile ekonomikoek ezin dute konfiantza jarri herri agintariak –legeak interpretatzeko daukaten ahalmena baliatuz– alda dezaketen egoera bat babestean. Hitzarmenei dagokienez, EBJAk egiaztatu du kasu honetan agintari eskudunek, esanbidez, berentzat gordetzen zutela baldintzak –araudietako aldaketan ondorioz– alde bakarretik aldatzeko eskubidea. Hori dela eta, nahiko argi geratzen zen eragile ekonomikoentzako pizgarriak aldatu edo kendu ahal izan zirela.

EBJAK ondorioztatzen du eragile ekonomikoen eskubidea –pizgarriak hitzarmenen indarraldi osoan aldaketarik gabe jasotzeko– ez da eskuratutako egoera juridiko bat eta ez dago babestuta Gutunaren 17. artikulua bidez. Babestuta daude, ordea,

legedi eta hitzarmenekin bat dagoeneko sortu diren pizgarriak, legedi eta hitzarmen horietan aurreikusita egoteaz gain.

Enpresaren askatasunak, Gutunaren 16. artikuluan ezarritakoak, barnean hartzen ditu jarduera ekonomiko edo komertziala egiteko askatasuna, kontratu-askatasuna eta lehia askea. Kontratu-askatasuna kontraturako bazkideak askatasunez hautatzea da, baita zerbitzu baten truke eskatzen den prezioa askatasunez zehaztea ere. Kasu honetan, egindako hitzarmenek eragile ekonomikoei uzten zieten aukera bakarra hitzarmen horiek onartzea edo uko egitea zen, ez baitzegoen negoziatzerik. Gainera, agintari publikoek hitzarmenak alde bakarretik aldatu ahal zituzten. Horiek horrela, pizgarri ekonomikoak aldatu zituen geroko araudia ezin da hartu kontratu-askatasunean egindako injerentziazat.

Halaber, enpresa-askatasunak esan nahi du askatasunez erabili ahal direla eskura dauden baliabide ekonomiko, tekniko eta finantzarioak. Enpresa-erakunde bat kostu handiak sor ditzaketen, enpresaren jardueran eragin nabarmena izan dezaketen neurriak hartzea behartzea edo konponbide tekniko konplexuak eskatzea askatasun horretan esku-sartzea da. Hala ere, pizgarri ekonomikoak enpresen baliabide propietzat hartu ezin direnez, eta enpresek pizgarri horiek jasotzeko (sortzen ez diren bitartean) bidezko konfiantza arrazoitzat aipatu ezin dutenez, ez dago injerentziarik.

### **Administrazio ona eta administrazio-prozedura**

1. [C-219/20, LM, Bezirkshauptmannschaft Hartberg-Fürstenfeld-en aurka](#), 2022ko otsailaren 10ekoa
  - Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 41. artikulua (administrazio ona izateko eskubidea)
  - Batasuneko Zuzenbideko printzipio orokorra, administrazio onari buruzkoa
  - Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 51.1 artikulua (Gutunaren aplikazio-eremua)

*Lekuz aldatutako langileek ematen duten estatuz gaindiko zerbitzu bati lotuta, lan arloko arau-hauste administratibo baten kasuan (arduragabekeria), bost urteko preskripzio-epea Gutunarekin bat etortzea*

Auzi nagusian ezarritako zehapenak gutxieneko soldataren zenbatekoari buruzko betebeharra ez-betetzea du oinarri, zenbatekoa langileek egiten dituzten lekualdatzei buruzko 96/71 Zuzentarauaren 3.1.c) artikuluan aurreikusitakoa izanik. Aipatutako xedapenak ezartzen duenez, lan-harremanari aplikatzen zaion legeria edozein delarik ere, estatuz gaindiko zerbitzuen esparruan, estatu kideek zaindiko dute enpresek beren lurraldera aldatu diren langileei lan- eta enplegu-baldintzak -besteak beste, gutxieneko soldata- berma diezazkieten. 5. artikulua

estatuen esku uzten du betebeharrak hori betetzea bermatzeko zehapen egokiak erabakitzeko ardura eta zuzentarauak ez du jasotzen arau-hausteen preskripzioari buruzko araurik.

Hortaz, auzi nagusian eztabaidatzen den estatuko araudia Batasunaren Zuzenbidearen aplikazioa da Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 51.1 artikulua ondorioetarako, lekualdatutako langileen ordainsari txikiegiak (gutxieneko soldataren azpitik) zigortzen dituelako; langile horiek 96/71 Zuzentarauaren aplikazio-eremuan sartzen direla ahaztu gabe. Horrela, Gutunaren aplikagarritasunak oinarria duela esan daiteke.

Gutunaren 41. artikulua ez dagokio, Europar Batasuneko instituzio, organo eta erakundeei soilik zuzenduta dagoelako; estatu kideak ez dira aipatzen. Hala ere, administrazio onerako eskubidea, aldi berean, Batasuneko Zuzenbideko printzipio orokorra da, estatuek Batasuneko Zuzenbidea aplikatzen dutenean aplikatu behar dena.

Zuzentarauak preskripzioari buruzko araurik ezartzen ez duenez eta zehapen egokiak erabakitzeko estatuen eskuan uzten duenez, estatuek erabateko askatasuna dute autonomia prozesalez jarduteko. Hala ere, estatuko arauak ezin dira antzeko egoeretan aplikagarriak diren eta Batasuneko Zuzenbideak aurretik erabaki dituen barne arauak baino okerragoak izan (baliokidetasun-printzipioa), eta ezin dute gehiegi zaildu edo guztiz eragotzi Batasuneko Zuzenbideak emandako eskubideak erabiltzea (eraginkortasun-printzipioa). Lehenengo printzipioak eskatzen du hizpide dugun araua berdin aplikatzea EBko Zuzenbidearen arau-hausteetan oinarritutako errekurtsioei zein barne-zuzenbidea ez-betetzean oinarritutakoei, baldin eta antzeko xedea eta kausa badituzte. Bigarren printzipioari jarraikiz, zehapen-prozedura batean, zehapena jasoko duen pertsonak aukera izan behar du modu egokian ezagutzera emateko Administrazioak bere erabakia oinarritzeko hartu nahi dituen elementuei buruz daukan ikuspuntua.

EBJAren arabera, bost urteko preskripzio-epea ez da gehiegizkoa, eta ez du kaltetzen zehapena jasotzen duen enpresaren defentsarako eskubidea. Alde batetik, zerbitzu ematea mugaz gaindikoa izateak zail dezake agintari eskudunen lana; bestaldetik, zuzentarauak berak beste estatu kide batean finkatuta dauden zerbitzu emailei honako betebeharrak ezartzen die: agintari eskudunei dokumentu jakin batzuk (besteak beste, soldatak ordaintzearen frogagiriak) aurkeztu behar dizkiete, arrazoizko epe batean, lekualdatze-aldia amaituta. Hori dela eta, eragile ekonomiko arduratsu baten kasuan, bost urteko preskripzio-epeak ez du sortuko bere ikuspuntua agintari zigortzaileari zehapen-prozedura batean behar bezala jakinarazi ezin izateko arriskurik. Era berean, ez du urratuko, geroko prozesu judizial batean, uziak eta frogak auzitegi batean aurkezteko eskubidea (Gutunaren 47. artikulua, babes judizial eragingarria izateko eskubidea).

2. [C-117/20, bpost SA, Autorité belge de la concurrence-ren aurka](#), 2022ko martxoaren 22koa

- Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 50. artikulua («bis in idem» delakoaren debekua)
- Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 52.1 artikulua (eskubideen murrizketari buruzko klausula)

*«Non bis in idem» printzipioa. Administrazio-agintari independentetek (posta arloko arauemaileak eta lehiaren agintaritzak) aldi berean zehapenak ezartzea*

«Bis in idem» delakoaren debekua Batasuneko Zuzenbidearen funtsezko printzipioa da eta Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 50. artikuluan jasota dago. Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 7. Protokoloaren 4. artikuluekin bat dator. Hortaz, eta Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 52.3 artikuluari jarraikiz, xedapen bi horien izaera eta irispidea berdinak izango dira. Hori dela eta, Gutunaren 50. artikulua interpretatzerakoan, kontuan izan beharko da 7. Protokoloaren 4. artikulua. Azken horrek debekatzen du egitate berberengatik eta pertsona beraren aurka bideratutako prozedurak eta zehapen penalak metatzea. Zehapenak izaera penala duen ala ez erabakitzeko, kontuan izan behar dira barne-zuzenbidean duen kalifikazioa, arau-haustearen izaera eta zehapenaren larritasuna. Hortaz, 50. artikulua ez ditu soilik prozedura eta zehapen "penalak" aipatzen, barne-zuzenbidearen zentzuan. Zehapen administratiboak ere egon daitezke barnean.

«Bis in idem» hautemateko lehenengo baldintza honako hau da: bigarren prozedura baten pean jarritako egitateei buruz iritzi irmoa eman duen ebazpen judizial bat egotea. Ebazpenak gaiaren mamia aztertu ondoren hartutakoa izan behar du.

Bigarren baldintza hau da: bigarren prozedura arau-hauste berari buruzko izatea. Hori erabakitzeko irizpide garrantzitsua egitate materialen antzekotasuna da. Egitateek eta arau zehatzailearen bidez babestutako interes juridikoak estatuko zuzenbidean daukaten kalifikazio juridikoa ez dira garrantzitsuak Gutunaren 50. artikulua onduerako. Egitate materialen antzekotasuna honela definitzen da: funtsean, berdinak diren –hau da, tartean egile bera duten eta modu bereizezinean elkarri lotuta dauden– gertaeren ondoriozko inguruabar konkretuen multzoa.

Egitate berberengatik pertsona beraren aurka hasitako prozedura judizialak metatzea Gutunaren 50. artikulua babesten duen oinarrizko eskubidearen murrizketa izango litzateke. Horrelako murrizketa justifikatu behar da Gutunaren 52.1 artikuluko parametroei jarraikiz: legez ezarrita egotea, funtsezko edukia errespetatzea, heinekotasuna eta justifikatuta egotea Batasunak onartzen duen interes orokorreko helburu batekin edo besteen eskubideen babesarekin.

Hortaz, bi administrazio-agintari independentek zehapenak ezarri dituztenean, egiaztatu behar da ea bakoitzaren esku-hartzea legez aurreikusita dagoen.

Prozedurak eta zehapenak metatzea «bis in idem» delakoaren debekuaren funtsezko edukiaren arabera izango da, baldin eta soilik araudi desberdinak betez gertatzen bada; hau da, ezin dira zigortu egitate berberak arau-hauste bera egiteagatik edo helburu berbera lortzeko. Zehapenak ezartzen dituzten eta batera indarrean dauden araudien helburuek Batasuneko Zuzenbidean onartutako interes orokorreko helburu legitimoak izan behar dute.

Heinekotasunari dagokionez, agintari publikoek erantzun juridiko osagarriak eman ditzakete, zuzenbidearekin bat, gizartearen kalterako jokabideen aurrean, multzo koherente bat osatzen duten prozedura desberdinen bidez; multzo horrek hizpide den arazo sozialaren alderdi desberdinei heltzen die, baldin eta konbinazioa gehiegizko karga bihurtzen ez bada eragindako pertsonarentzat. Prozedurak metatzearen ondorioz sortzen den karga gehigarria –eragindako pertsonak jasan behar duena– zehapen bakoitzaren bidez lortu nahi diren bi helburuekin justifikatzeko modukoa izango da nahitaez.

Bi prozedura desberdin hastea neurri aproposa da araudi biak benetan aplikatuz lortu nahi diren interes orokorreko helburuak betetzeko. EBJAren arabera, prozedurak metatu behar diren ala ez erabakitzeko, arau argi eta zehatzak sortu behar dira, prozedurak eta zehapenak zer jokabideren kasuan meta daitezkeen aurreikusteko; era berean, aztertu behar dira agintarien arteko koordinazioa, prozeduren denbora koordinatzea eta denbora-hurbiltasuna, eta ea lehenengo zehapena kontuan hartu zen bigarrena ebaluatzeko eta ezartzeko orduan (dena den, bigarren zehapena lehenengoa baino larriagoa izateak berez ez du heinekotasuna baztertzen). Metatutako zehapenen larritasunak egindako arau-hausteen larritasunaren arabera izan behar du. Faktore horiek a posteriori baino ezin ikusi diren arren, EBJAren iritziz, «bis in idem» delakoaren debekuaren baldintza bikoitza (bigarren ebazpenak hizpide dituen egitateei buruzko ebazpen irmo bat egotea) nahikoa da Gutunaren 50. artikulua funtsezko edukia errespetatzeko. Gauzak horrela, inguruabar horietan, EBJAk onartzen du egitate berberengatik bi zehapen ezartzeko aukera: bat, araudi sektoriala hausteagatik, eta beste bat, lehiari buruzko araudia hausteagatik.

Ikus, era berean, [C-151/20, Bundeswettbewerbsbehörde Nordzucker AG-ren aurkako](#) auzian emandako epaia, eta 2022ko martxoaren 22ko beste batzuk, non EBJAk argitzen baitu «bis in idem» delakoaren debekua aplika daitekeela, halaber, salbuespen gisa, arau-hauste bat dagoela adierazteko bidea bakarrik (zehapenik ezarri gabe) ematen duten zehapen-prozeduretan ere.

## II. EUROPAR BATASUNeko ZUZENBIDEAREN EDUKI OROKORRAK

### Administrazio ona eta administrazio-prozedura

1. [C-205/20, NE, Bezirkshauptmannschaft Hartberg-Fürstenfeld-en aurka](#), 2022ko martxoaren 8koa

*Zuzentarau baten xedapenen eragin zuzena estatuko zuzenbide administratibo-zehatzaileko xedapenen aurrean; azken horiei dagokienez, zuzentarauarekin bat ez etortzea deklaratu zen EBJAren aurreko ebazpenetan, baina jarraitzen dute indarrean. Interpretatzeko betebeharraren irispidea bat dator.*

Aurreko ebazpenetan, EBJAk deklaratu zuen estatuko araudi zehatzailea -lekualdatutako langileei buruzkoa- ez zettorrela bat 2014/67 Zuzentarauaren 20. artikularekin, neurritz kanpoko zelako.

EBJAK gogorarazi du zuzentarau baten xedapenek eragin zuzena izan ahal dutela, unean uneko transposizioz ez dagoenean edo egindako transposizioa desegokia denean, baldin eta nahikoa zehatzak badira eta baldintza baten pean ez badaude. Batasuneko Zuzenbideko xedapena baldintzarik gabekoa da, baldin eta betekizun bati lotuta ez dagoen eta -betearazteko eta ondorioak sortzeko- geroko egintzaren menpean ez dagoen betebeharrak ezartzen badu. Nahikoa zehatza da, baldin eta betebeharrak zalantzarik gabeko moduan ezartzen badu. Aplikazio-arauak ezartzeko orduan estatu kideei interpretaziorako tarte bat uzten dieten xedapenek ere izan dezakete eragin zuzena, estatuei emaitzak izateko betebeharrak zehatza eta zalantzarik gabekoa -jasotzen duen arauaren aplikazioari dagokionez, baldintzarik jartzen ez duena- ezartzen dietenean.

EBJAren iritziz, arau-haustearen araberrako zehapenak ezartzeko betebeharrak (2014/67 Zuzentarauaren 20. artikulua) baldintza gabekoa da eta zentzu absolutuan formulatuta dago. Gainera, neurritz kanpoko zehapenak ezartzea debekatzeko, ez da aplikazio-egintzarik behar, ez Batasunaren partez, ez estatuen partez; izan ere, haiek ez dute betebeharrak horren irispidea baldintzatu edo mugatzeko ahalmenik. Transposizioa egiteko beharrak ez du indargabetzen xedapenen baldintzagabetasuna. Heinekotasuna kasu guztietan eskatu behar da eta estatuek daukaten interpretaziorako tarteak ez du kentzen horren inguruko jurisdikzio-kontrola egiteko aukera; ondorioz, nahikoa zehatza da. Estatu batek neurritz kanpoko zehapenak ezartzen dituenean, eragindako pertsonak aukera izan behar du Zuzentarauaren 20. artikuluan agertzen den heinekotasunaren eskakizuna zuzenean argudio gisa aipatzeko. Horrez gain, EBJAK gogorarazi du heinekotasun-printzipioa Batasuneko Zuzenbidearen printzipio orokorra dela, estatu kideek nahitaez bete beharrekoa, aipatu Zuzenbidea aplikatzen dutenean.



Pertsona pribatu batek estatuko auzitegi batean heinekotasunaren eskakizuna aipatzen duenean eta eragin zuzena izateko baldintza guztiak betetzen direnean, epaile nazionalak eskakizun horren erabateko eraginkortasuna bermatu beharko du. Estatuko araudia eskakizun horrekin bat interpretatu ezin badu (muga: *contra legem*), ekimen propioz, alde batera utzi beharko ditu bateraezinak diren xedapen nazionalak. Epaile nazionalak proportzionaltasunik ezaren jatorria den zatia bakarrik baztertu ahal izango du estatuko arauditik; batez ere, estatuko araudi zehatzailea egokia bada zuzentarauak ezarritako helburuak lortzeko, helburu horiek lortzea eraginkorrak eta neurrizkoak diren eta atzera botarazten duten zehapenen bidez bermatu behar denean. Segurtasun juridikoa, zehapenen legezkotasuna eta atzeraeraginik eza bezalako arazoak ez dira planteatzen, ondorioa haxe izango baita: epaileak zehapen arinagoak ezartzea.

2. [C-177/20, "Grossmania" Mezőgazdasági Termelő és Szolgáltató Kft, Vas Megyei Kormányhivatal-en aurka](#), 2022ko martxoaren 10ekoa

- Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 267. artikulua

*Estatu kideen betebeharra, Batasuneko Zuzenbideari erabateko ondoreak emateko: Justizia Auzitegiaren epaiketa aurreko epai baten ondoriozko betebeharrak, EBJAren interpretazioaren aurkako araudi nazionala aplikatu gabe uzteko; Batasuneko Zuzenbidearen aurkako araudian oinarritutako ebazpen administratiboak, irmo bihurtu direnak; baliokidetasun- eta eraginkortasun-printzipioak.*

Justizia Auzitegiak epaiketa aurreko epaietan Batasuneko Zuzenbideko xedapenen inguruan egiten duen interpretazioak argitu eta zehaztu egiten du xedapen horien esanahia, indarrean jarri direnetik ulertu eta aplikatu behar diren edo behar izan diren moduan. Epaiketa aurreko epai batek ez du osagarri-baliorik, adierazpen-balioa baizik. EBJAk erantzun argia eman badio Batasuneko Zuzenbidea interpretatzeko moduari buruzko galdera bati, estatu kideetako organo jurisdikzionalak beharrezkoa den guztia egin behar dute interpretazio hori aplikatzeko.

Nagusitasun-printzipioari jarraikiz, bat datorren interpretazioa egin ezin daitekeenean, organo judizialek aplikatu gabe utzi behar dute Batasuneko Zuzenbideko eragin zuzeneko xedapenen aurka doazen estatuko araudi guztiak, horiek lege bidez kendu arte itxaron gabe. Betebehar hori bera estatuko agintari administratiboek bete behar dute, une jakin batean aplikatu behar badute Batasuneko Zuzenbideko eragin zuzeneko xedapenen aurka doan araudi nazional bat.

Batasuneko Zuzenbideko eragin zuzeneko xedapenen aurka doan estatuko araudiari jarraikiz hartutako ebazpen administratibo irmoak egoteari dagokionez, EBJAk gogorarazi du estatuen ardura dela justiziapekoen eskubideak bermatzeko baliabide judizialak arautzea, beren autonomia prozesalarekin bat. Hala ere, Batasuneko Zuzenbidearen esparruan jarduten badute, eraginkortasun- eta baliokidetasun-printzipioak errespetatu beharko dituzte. Horrela, EBko Zuzenbidearen aurka doan

administrazio-ebazpen irmo bat aurkaratzeko aukera ez da aldatuko ebazpenak urratzen duen zuzenbidearen arabera (berdin da estatukoa izatea edo EBkoa izatea). Printzipioz, Batasuneko Zuzenbidean onartu egiten da administrazio-ebazpenei irmotasuna ematen dien segurtasun juridikoa, ebazpen horiek aplikatzea zailago bihur dezakeen printzipio gisa; hala ere, kasuan-kasuko inguruabarrak direla eta, gerta daiteke estatuko administrazio-organo batek EBko Zuzenbidearen aurka doan ebazpen irmoa berraztertu behar izatea, eta hori, Europar Batasunaren Tratatuaren (EBT) 4.3 artikuluan aipatutako eraginkortasunaren eta lankidetzaren leialaren printzipioak betez. Kasu honetan, EBJAk kontuan hartu du Batasuneko Zuzenbidearen urraketaren larritasuna (EBFTren 63. artikulua, oinarrizko askatasunetako bat, eta Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 17. artikulua), baita eragindako pertsonen kopurua ere (5.000).

Gainera, EBTren 4.3 artikulua Batasuneko Zuzenbidearen urraketaren lege kontrako ondorioak kentzera behartzen ditu estatu kideak. Horiek horrela, epaiketa aurreko epai batek, estatuko araudi bat Batasuneko Zuzenbidearekin bat ez datorrela adierazten duenak, aipatu araudia aplikatzeari uko egiteko betebeharrak gain, estatu kide horretan Batasuneko Zuzenbidea bermatuko duen beste edozein neurri hartzeko betebeharra ere ekartzen du ondorioz. Neurri zehatzak kasuan-kasuan zehaztuko dira. Aipatutako epaian, estatu kidean indarrean dagoen legediaren aurka doazen neurriak aipatzen ditu EBJAk. Neurri horiek ezin badira ezarri (ez legediaren aurkakoak direlako, baizik eta hirugarrenen eskubideei eragiten dietelako), EBJAk diru-ordaina onartzen du. Eragindako partikularrek estatuaren ondare-erantzukizuna erreklamatzeko eskubidea izango dute, Batasuneko Zuzenbidea urratzeagatik.

### III. ARLOKAKO EPAIAK (EBJA y GEEA)

#### Herri-administrazioen zerbitzuko langileak

##### EBJA

1. [C-282/19, YT eta beste batzuk, Ministero dell'Istruzione, dell'Universita e della Ricerca y Ufficio Scolastico Regionale per la Campania-ren aurka](#), 2022ko urtarrilaren 13koa

- Iraupen Zehatzeko Lanari buruzko Esparru Akordioaren 4. eta 5. klausulak (Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen, UNICEren eta CEEPen Iraupen Zehatzeko Lanari buruzko Esparru Akordioari buruzko 1999/70/EE Zuzentarauari erantsia)
- 2000/78/EE Zuzentarauaren 1. eta 2. artikulua, 2. apartatua, a) letra, enpleguan eta okupazioan tratu-berdintasunerako esparru orokorra ezartzeari buruzkoa

*Ikastetxe publikoetan lan egiten duten erlijio katolikoko irakasleen iraupen jakineko lan-kontratuak birkalifikazioa (iraupen mugagabeko lan-kontratu bihurtzeko) ukatzea. Ikastetxe publikoetako erlijio katolikoko irakasleak iraupen jakineko lan-kontratu gehiegi egitea zigortzeko araudien aplikazio-eremutik kanpo uzten dituen estatuko araudia. Esparru Akordioaren zentzuan, arrazoi objektiboa ez den egokitasun-adierazpen ezeztagarriaren (ordinario diozesiarrek egindakoaren) mendeko erlijio katolikoko irakasleak.*

2000/78 Zuzentarauak, bere aplikazio-eremuan, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 21. artikuluan ezarritako bereizkeriarik ezaren printzipio orokorra zehazten du. Justizia Auzitegiak, beraz, zuzentzarau hori kontuan hartuta aztertzen du gaia. Zuzentarauaren 1. artikuluan erabiltzen den "erlijio" kontzeptuak barnean hartzen du bai uste sendoak izatea, baita fedea publikoki adieraztea ere.

EBJAK egiaztatu duenez, iraupen jakineko kontratuak mugagabeko bihurtu ezin izateak eta kalte-ordaina jasotzetik baztertzeak ez dute zerikusirik eragindako irakasleen erlijioarekin; izan ere, irakaskuntza publikoko langileak izatea da kontua, haiek guztiak baztertuta baitaude aukera bi horietatik. Erlijioako irakasleek iraupen mugagabeko kontratazioko prozedura puntual edo berezietan etekinik atera ez bazuten ere, horren arrazoia beren eginkizunak urtekoak izatea zen, ezin izan baitzuten izena eman gaitasun-zerrenda iraunkorretan. Urtekoa izateak ez du zerikusirik egokitasun-adierazpen ezeztagarriarekin, horrek kontratu mugagabeak dituzten erlijio katolikoko irakasleei ere eragiten dielako. Hortaz, baztertu egiten da erlijioagatik diskriminatzeari buruzko alderdia; kasua iraupen jakineko lanari buruzko Esparru Akordioaren ikuspegitik bakarrik aztertuko da.

Esparru Akordioa ikastetxe publikoetan ematen den irakaskuntzaren sektorean kontratatutako langileei aplikatzen zaie, bere xedapenek ezin sektore ez baitute baztertzen. Aipatu Esparru Akordioak ezartzen duen printzipioa –bereizkeriarik ez egiteko– iraupen jakineko kontratuak dituzten langileei antzeko egoeran dauden eta kontratu mugagabeak dituzten langileekin konparatuta aplikatzen zaie, baina ez da aplikatzen iraupen jakineko kontratuak dituzten langileen artean. Aldi baterako kontratuak dituzten erlijioako irakasleak –beste irakasgai batzuetako irakasleak ez bezala– beren kontratuak mugagabe bihurtzeko aukeraz baliatu ezin izatea tratu-bereizketa da, aldi baterako kontratuak dituzten irakasleen bi kategoriaren artean gertatzen dena. Hori dela eta, kasua ez da sartzen Esparru Akordioaren 4. klausularen aplikazio-eremuan.

Esparru Akordioaren 5. klausulak aldi baterako kontratazioa gehiegi erabiltzea saihesteko helburu orokorra esleitzen die estatuei, eta zerrendatzen dituen hiru neurrietako bat hautatzeko aukera ematen die. Estatuak kontuan izan ditzakete aztertzen diren jarduera-sektoreen edo langile-kategorien behar partikularrak, baldin eta hori behar bezala justifikatuta badago. Aitzitik, 5. klausulak ez du aipatzen berariazko zehapenik, gehiegikeriak gertatuz gero. Edonola ere, estatuko agintariak neurri proportzionalak, eraginkorrak eta disuasiokoak hartu beharko dituzte Esparru Akordioa aplikatuz hartutako neurrien eraginkortasuna bermatzeko. Bereziki, klausula horrek ez du ezartzen iraupen jakineko kontratuak mugagabe bihurtzeko betebeharrak, baizik eta estatuei uzten die aldaketa hori egiteko baldintzak zehazteko ahalmena. Alabaina, kasu horretan, estatuak beste neurri eraginkor bat izan behar dute gehiegikeriak saihestu eta zigortzeko, adibidez, erabilera arrazoi objektiboengatik murriztea edo kontratu mugagabeen kopurua edo iraupen osoa mugatzea.

Esparru Akordioaren 5.1.a) artikuluan agertzen den “arrazoi objektiboen” kontzeptuari dagokionez, jarduera jakin bat ezaugarritzen duten inguruabar espezifiko eta konkretuak dira, testuinguru partikular horretan aldi baterako kontratuen erabilera justifika dezaketenak. Inguruabar horiek zereginen izaeran izan dezakete abiapuntua, berez dagozkien ezaugarrietan edo gizarte-politikako helburu legitimo bat lortzeko nahian. Ondoz ondoko aldi baterako kontratuak erabiltzea modu orokorrean eta abstraktuan baimentzen duen arau-xedapena ez dator bat eskakizun horiekin.

EBJAK ez du onartzen iraupen jakina justifikatzeko arrazoi objektibo gisa erlijioako irakasleen eta apezpiku diozesiarraren artean egon behar den konfiantza-harremana, harreman hori kontratu mugagabea duten erlijioako irakasleei ere dagokie eta. Hortaz, egokitasun-adierazpen ezeztagarri baten mende egotea ez da arrazoi objektiboa. Aitzitik, hezkuntza sistemaren antolamenduak irakasleen eta ikasleen artean proportzio jarraitua –nekez aurreikus daitezkeen faktoreen arabera alda daitekeena– bermatzeko eskatzen duen malgutasuna onartzen du arrazoi objektibo gisa. Horrela, saihestu daiteke estatuak benetan behar dena baino irakasle kopuru askoz handiagoa kontratu mugagabeen bidez kontratatzea. Hala ere, ez da onargarria aldi baterako kontratuak bata bestearen atzetik egitea, irakaskuntza-sektorearen ohiko jarduerari dagozkion zereginak modu iraunkor eta modu egonkorrean betetzeko. Arrazoi

objektibo bat dagoenez, hasiera batean, baztertuta daude gehiegikeriak, egoera partikularraren azterketak erabilitako aldi baterako kontratuek aldi baterako beharrari erantzuten ez diotela egiaztatzen duenean izan ezik.

Egokitasun-adierazpena arrazoi objektiboa ez dela ebatzita, eta estatuko zuzenbidean aldi baterako kontratazioa gehiegi erabiltzea saihestu eta zigortzeko beste neurririk ez dagoenez (dauden neurriek baztertzen baitituzte erlijio katolikoko irakasleak), EBJAk ondorioztatu du egoera ez datorrela bat Esparru Akordioaren 5. klausularekin.

Esparru Akordioaren 5.1 klausulak ez du eragin zuzenik eta ezin da argudio gisa aipatu epaile nazional baten aurrean estatuko zuzenbidearen aurkako xedapen baten aplikazioa baztertzeko.

## 2. [C-634/20, A.](#), 2022ko martxoaren 3koa

- Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 45. eta 49. artikulua

*Baimena ematea, estatu kide batean era independentean mediku lanbidean aritzeko, denbora mugatuz, mediku baimendun baten zuzendaritzapean eta hark gainbegiratuta, medikuntza orokorrean berriazko prestakuntza jasotzeko baldintzapean, medikuntzako oinarrizko prestakuntzako titulu bat edukita, beste estatu kide batean lortutakoa eta 2005/36 Zuzentarauaren V. eranskinean aipatzen dena, baina titulua eman duen estatuan mediku independente gisa aritzeko eskatzen den esperientzia-ziurtagiririk gabe. Baldintzapeko baimena, denboran mugatua, gaikuntza-titulua automatikoki onartu beharrean, 2005/36 Zuzentarauaren arabera*

EBJAK argitu duenez, auzi nagusiko demandatzailea ezin izan zen 2005/36 Zuzentarauaren 21. artikuluan aipatutako onarpen automatikoaren araubideaz baliatu, ez baitzuen eskubiderik titulua eman zion estatu kidean medikuntzan benetan aritzeko, esperientzia-ziurtagiririk ez zuelako. Bestalde, Zuzentarauaren 10.b) artikulua ez du behartzen harrera egiten duen estatu kidea eskatzaile baten prestakuntza-titulua aztertzera, pertsona horrek ez baditu tituluak jaso zituen estatu kidean (jatorrizko estatu kidean) oinarrizko prestakuntza duen mediku lanbidean aritzeko beharrezkoak diren kualifikazioak.

Hala ere, 2005/36 Zuzentarauaren aplikazio-eremutik kanpo geratzen diren egoeretan, EBFTren 45. eta 49. artikuluei jarraikiz, estatu kideen kasuan, oraindik ere indarrean dago kualifikazio edo titulu bat eskatzen duen lanbide batean aritu nahi duen eskatzaile batek aurkeztutako diploma, ziurtagiri eta bestelako titulu guztiak kontuan hartzeko betebeharra. Estatu kideek kontuan hartu beharko dute interesdunaren esperientzia, eta pertsona horrek egiaztatzen dituen gaitasunak eta estatuko legediak eskatzen dituen ezagutza eta trebakuntza maila konparatu. Konparazio horren bidez, harrera egiten duen estatu kideko agintariek aukera izan

behar dute eskatzailearen ezagutza eta kualifikazioak estatuko tituluak egiaztatzen dituenen baliokideak direla (gutxienez) objektiboki ziurtatzeko. Estatuko legediak ezarritako eskakizunekiko (ezagutza eta kualifikazioak) baliokidetasuna egiaztatzen bada, harrera egiten duen estatuak egoera onartu beharko du. Funtsezko ezberdintasunak badaude, harrera egiten duen estatuak neurri konpentsatzaileak ezarri ahal izango ditu, ezberdintasun horiek betetzeko. Neurri horiek eman beharko dira. Estatuko araudiak ezin dizkie mediku aritzeko oinarrizko prestakuntzako titulu bat duten guztiei neurri konpentsatzaile berdinak modu orokorrean eta bereizi gabe ezarri, konparazio zehatza kasu bakoitzean egin behar delako eta neurri konpentsatzaileek kasuaren arabekoak izan behar dutelako.

Pertsonen zirkulazio librea oztupo bihurtzen da estatu kideentzat Batasuneko Zuzenbideak emandako askatasunak –kualifikazioa beste estatu kide batean eskuratzeko askatasuna– erabili eta gero horiek beren herrialdean baliatu nahi dituzten herritarrei EBFTren 45. eta 49. artikuluek gozatzeko aukera ukatzeko.

Kasu horretan, EBJAk ondorioztatu du auzi nagusiko demandatzaileari ezarri zitzaizkion baldintzak ez zetozeela bat EBFTren 45. eta 49. artikuluekin.

## Kontratazio publikoa

### EBJA

1. [C-461/20, Advania Sverige AB eta Kammarkollegiet, Dustin Sverige AB-ren aurka](#), 2022ko otsailaren 3koa
- Kontratazio publikoari buruzko 2014/24/EB Zuzentarauaren 72. artikuluko 1. apartatuaren d) letra, ii) puntua

*Lau esparru-akordio kontratazio publikoko prozedura berririk gabe lagatzea, hasierako adjudikazioduna den enpresaren konkurtsoa dela eta, eta konkurtsoko administratzaileak esparru-akordioa lagatzea*

2014/24 Zuzentarauaren 72.1.d).ii) artikulua, salbuespen bidea erabiliz, onartzen du hasierako adjudikazioduna beste kontratista batek ordeztzea, adjudikazio-prozedura berririk gabe, hasierako kontratistaren ondorengotza –erabatekoa edo partziala– gertatuz gero, kaudimengabezia-egoera baten ondorioz. Adjudikaziodun berriak hasieran ezarri diren hautaketa kualitatiborako irizpideak bete beharko ditu eta ezin da egon bestelako funtsezko aldaketarik kontratuan.

Hori dela eta, adjudikazioduna lehiaketa berririk gabe ordezteko aukera egon dadin, ondorengotza bat, “erabatekoa edo partziala”, gertatu behar da. Horrek esan nahi du ondorengotzak hasierako kontratistaren ondarearen zati bat bakarrik gain hartzea ekar dezakeela; ondorioz, kontratistaren ondarea osatzen duten kontratu publiko bat bakarrik edo hasierako esparru-akordio bat lagatzen da, hasierako kontratistaren jardura osoari –esparru-akordio horren baitan– berriro lotu gabe. Baldintza hori berez ez da nahikoa kontratista berriak hasierakoarena bezalako ahalmena izatea

bermatzeko; horrela bada ere, 72.1.d).ii) artikulua, gainera, kontratista berriak hautaketa kualitatiborako irizpideak –hasieran ezarritakoak– betetzea eskatzen du.

EBJAK egiten duen interpretazioak, 72.1.d).ii) artikuluan erabilitako “kaudimengabezia” terminoa dela eta, ez du esan nahi erabateko ondorengotza gertatu denik, hau da, kontratista berriak hasierako kontratista esparru-akordioan deskribatutako jardueran erabat ordeztu duenik. Esparru-akordioaren ondoriozko eskubide eta betebeharretan soilik ordeztea nahikoa izango da 2014/24 Zuzentarauaren 72.1.d).ii) artikuluko baldintzak betetzeko eta, hortaz, lehiaketa berria ez da beharrezkoa izango.

## 2. [C-195/21, LB, Smetna palata na Republika Bulgaria-ren aurka](#), 2022ko martxoaren 31koa

- Kontratazio publikoari buruzko 2014/24/EB Zuzentarauaren 58. artikuluko 4. apartatua, Batzordearen 2017/2365 (EB) Erregelamendu Eskuordetuak aldatutako bertsioan
- Europako Erkidegoaren finantza-interesak babesteari buruzko 2988/95 Erregelamenduaren (EE, Euratom) 8. artikulua, 3. apartatua
- 1303/2013 Erregelamendua (EB), Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsari, Europako Gizarte Funtsari, Kohesio Funtsari, Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsari eta Itsas eta Arrantzako Europako Funtsari buruzko xedapen erkideak ezartzen dituen, eta Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsari, Europako Gizarte Funtsari, Kohesio Funtsari, eta Itsas eta Arrantzako Europako Funtsari buruzko xedapen orokorrak ezartzen dituen

*2014/24 Zuzentarauaren garrantzia, zuzentarauek ezarritako zenbateko-mugaren azpitik geratzen diren kontratuen kasuan. Ahalmen tekniko eta profesionalari dagokionez, estatuko araudiak eskatzen dituen gutxienekoak baino eskakizun zorrotzagoak ezartzeko aukera. Kontratazio-prozedura bi agintari desberdinek aztertzeo aukera, Europar Batasunaren funtsak erabili behar direnean*

Estatu kideen Zuzenbideak Batasuneko Zuzenbidearen aplikazio-eremutik kanpoko egoerak (adibidez, kontratazio publikoari buruzko zuzentarauek ezarritako zenbateko-mugaren azpitik dauden kontratuak) konpontzeko Batasuneko Zuzenbidera jotzen duenean, zuzenean eta baldintzarik gabe, Batasunak interesa du estatuko xedapenak beti berdin interpretatzeko. Horrela, saihesten dira desadostasunak zuzenbidea interpretatzeko orduan.

58.1 artikuluari jarraikiz, botere adjudikatzaileek 2., 3. eta 4. apartatuetan ezarritakoa bakarrik eskatu ahal diete eragile ekonomikoei, parte hartzeko baldintza gisa: lanbide-jardueran aritzeko gaikuntza, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa,

eta gaitasun tekniko eta profesionala. Izangai batek behar besteko gaitasun juridiko zein finantzarioa eta kontratua gauzatzeko beharrezko ahalmenak badituela bermatzeko egokia dena besterik ez da aplikatuko. Eskakizunek kontratuaren xedeari lotuta egon eta xede horren arabera izan behar dute. Horrez gain, botere adjudikatzailerak 2014/24 Zuzentarauaren 18. artikuluko printzipioak bete beharko ditu; batez ere, gardentasunez eta neurritz jokatu du. Alabaina, aldi berean, interpretazioa egiteko ahalmen zabala dauka, ezarri beharreko baldintzak ebaluatzeko orduan. Izan ere, kualifikazio-baldintza bat –kontratuaren xedea kontuan hartuta– justifikatuta badago eta proportziozkoa bada, Zuzentarauaren 58. artikulua ez dio botere adjudikatzailerari baldintza hori ezartzeko oztoporik jartzen, estatuko legedian aurreikusitako exigentzia maila gainditzen duelako bakarrik.

2988/95 eta 1303/2013 erregelamenduek ez dute eragozten kontratu publiko baten adjudikazio-prozedura bera aztergai izatea bi ikuskapen desberdinetan: batetik, Europako funtsen bidez finantzatzen den programa baten kudeaketaz arduratzen den agintaritzaren ikuskapenean eta, bestetik, auditoretzak egiten dituen agintariaren kontrol batean (kasu honetan, Kontuen Auzitegia). Bi agintari independente direnez eta helburu desberdinak dituztenez, kontratazio-prozedura bera ikuska dezakete, elkarren segidan. Agintarietako batek prozedurako jarduketa bat ontzat ematea ez da oztopo gero beste agintariak jarduketa horren bateragarritasuna (Batasuneko Zuzenbidearekiko) azter dezan eta beste balorazio bat egin dezan. Nolanahi ere, proportzionaltasun-printzipioa errespetatu beharko da eta saihestu beharko dira oztopo ekonomikoak eta gehiegizko gastu administratiboak (2988/95 Erregelamenduaren 8.2 artikulua).

## Desgaitasunen bat duten pertsonak

### EBJA

1. [C-485/20, XXXX, HR Rail SA-ren aurka](#), 2022ko otsailaren 10ekoa
- 2000/78/EE Zuzentarauaren 5. artikulua (enpleguan eta okupazioan tratu-berdintasunerako esparru orokorra ezartzeari buruzko zuzentaraua)

*Desgaitasunaren ondorioz praktikaldian kaleratzea, gradu berean kontratatzea bost urtez debekatuta eta lanpostuz aldatzeko eskubiderik gabe. Burdinbideen mantentze-lanetarako langilea: taupada-markagailua jarri zioten, gailu bateraezina bere lanpostuan ohikoa den eremu magnetikoetan egoteko beharrarekin. Agintari eskudunaren adierazpena, langilea lanerako gai ez dela esaten duena.*

EBJAren arabera, enpresari batek kontratatu eta gero prestakuntzari lotutako praktikaldietan dauden langileei aplikatzen zaie 2000/78 Zuzentaraua, bere 3.1.a) eta b) artikuluen esanahia nahikoa zabala delako. Halaber, EBJAren iritziz, langilearen egoera desgaitasuntzat jo behar da zuzentarauaren zentzuan, bere lanpostuari dagozkion funtsezko eginkizunak betetzea eragozten dion osasun-arazo bat delako (desgaitasunaren definizioa EBJAren jurisprudentzian: “gaitasuna epe



luzera murriztea, bereziki, gaitz fisiko, mental edo psikikoen ondorioz; egoera horrek, askotariko oztopoei lotuta, gaitasuna galdu duen pertsonari galarazi ahal dio lanbide-bizitzan bete-betean eta eragingarritasunez parte hartzea, gainerako langileen baldintza berberetan”).

2000/78 Zuzentaraua NBEren Konbentzioaren arabera interpretatu behar da (degaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko konbentzioa). Azken horren arabera, zentzuzko egokitzapenak ukatzea diskriminazio mota bat da. Zuzentaruaren 5. artikulua eskatzen du zentzuzko egokitzapenak egitea, degaitasuna duten pertsonak berdintasunez tratatzea bermatzeko. Egokitzapen horiek askotarikoak izan daitezke: fisikoak edota antolamenduaren edo hezkuntzaren arlokoak. Bai zuzentaruak, bai konbentzioak, ideien kontzeptu zabala defendatzen dute. Neurri horien artean, degaitasuna duen pertsona beste lanpostu batera aldatzea egon daiteke, baita degaitasuna duen pertsonaren enplegua mantentzea ahalbidetzen duten beste batzuk ere. Langile batek bere lanpostuko eginkizunak betetzeko gaitasuna galtzen duenean, “zentzuzko egokitzapenen” kontzeptuaren arabera, beste lanpostu batera bidali behar da; lanpostu horrek eskatzen dituen gaitasun, trebakuntza eta prestasuna izan behar du langileak.

Bestalde, Zuzentaruaren 5. artikulua ez du esaten enplegatzailerik gehiegizko karga diren egokitzapenak egin behar dituztenik. Gehiegizko karga sortzen den ala ez erabakitzeke, kontuan izan behar dira kostu finantzarioak, tamaina, finantza-baliabideak, negozioen bolumena eta funts publikoen edo beste laguntza batzuen eskuragarritasuna. Degaitasuna duen pertsona bat beste lanpostu batera bidali ahal izateko, langileak okupatzeko moduko lanpostu huts bat –gutxienez– egon behar da erakundean.

## GEEA

1. [Negovanović eta beste batzuk, Serbiaren aurka](#), 2022ko urtarrilaren 25ekoa (demandaren zk.: 29907/16)

*Xake-jokalariitsuak baztertzea, ikusten duten jokalariei antzeko nazioarteko txapelketak irabazteagatik aintzatespen gisa ematen zaizkien eskudiruzko sariak banatzeko orduan*

GEEHren 12. Protokoloaren 1. artikulua (estatuko legediak aitortutako eskubideei dagokienez, diskriminatua ez izateko eskubidea): urraketa

Demandatzaileek jokalaria itsuentzako nazioarteko xake-olinpiada irabazi zuten, baina gobernuak ez zien eskudiruzko saririk eman, horrelako sariak antzeko nazioarteko trofeoak irabazi izan zituzten beste kirolari batzuei eman arren. Estatuko auzitegiek gaitzetsi zituzten beren demandak. Estatuko legediak, auzitegiek aplikatu zuten moduan, sariak aurreikusten zituen xake-olinpiadako irabazleentzat, baina ez itsuentzako olinpiada irabazi zutenentzat. Horiek horrela, pertsonak desberdin tratatzen ziren antzeko egoeretan, eta tratu-bereizketa hori degaitasunari lotuta

zegoen; beraz, egoera 12. Protokoloaren 1. artikularen aplikazio-eremuan sartzen zen.

Justifikazioari dagokionez, GEEAk ez du ulertu zergatik demandatzaileek irabazi zuten nazioarteko norgehiagoka ez zen ikusten duten xake-jokalariek irabazitakoa bezain garrantzitsua. Ulertezina da kirol baten prestigioa hura praktikatzen duten pertsonen desgaitasunari edo desgaitasunik ezari lotzea; izan ere, Serbiako araudiak –sariei buruzkoak– maila berean jartzen zituen olinpiar jokoak eta joko paralinpikoak. Serbiako kirolari guztien artean, xake-jokalaria itsuek bakarrik ez zituzten sariak jaso; beraz, egoera ezin zen justifikatu finantza-arrazoiak erabiliz. Gauzak horrela, arrazoi objektibo eta bidezkorik ezean, diskriminatua ez izateko eskubidea urratu zela deklaratu du GEEAk.

Lotutako beste epai batzuk: Glor Suitzaren aurka, 2009ko apirilaren 30ekoa (demandaren zk.: 13444/04); Savez crkava “Riječ života” eta beste batzuk Kroaziaren aurka, 2010eko abenduaren 9koa (demandaren zk.: 7798/08); Napotnik Errumaniaren aurka, 2020ko urriaren 20koa (demandaren zk.: 33139/13)

2. [Anatoliy Marinov, Bulgariaren aurka](#), 2022ko otsailaren 15ekoa (demandaren zk.: 26081/17)

*Osasun mentaleko arazoak zituen demandatzailearen gainean tutoretza partziala ezarri ondoren boto-eskubidea automatikoki kentzea, pertsona horren botoa emateko gaitasunari buruzko azterketa judizialik gabe*

GEEHren 1. Protokoloaren 3. artikulua (botoa emateko eskubidea): urraketa

Demandatzailearen lege-gaitasuna eta boto-eskubidea gero berreskuratu ziren arren, parlamentu-hauteskunde batzuk galdu zituen.

GEEAk egiaztatu duenez, demandatzaileari ezarritako muga legez aurreikusita zegoen, honako helburu legitimo hau lortzeko: botoa ematen duten pertsonak erabaki informatua hartzeko gai diren pertsonak direla bermatzea. Hala ere, legediak ez zituen bereizten tutoretza osoaren eta partzialaren kasuak, eta neurritz kanpokoak da GEEAren iritziz. Estatuak interpretaziorako tartea badaukate ere, ez du ematen legegileak gatazkan zeuden interesen artean haztapena egin zuenik, ez eta kasuz kasuko azterketa judiziala egitea baimendu zuenik. Gainera, ez zegoen inongo aukerarik baimena emateko, lege-gaitasunez gabetutako pertsona batek botoa eman zezan. GEEAk kritikatu du berdin tratatzen direla desgaitasun mentalak eta intelektualak dituzten pertsona guztiak, eta gogorarazi du pertsona horien eskubideak murriztu nahi izanez gero, kasua zorrotzasunez aztertu behar dela; azkenean, GEEHren 1. Protokoloaren 3. artikulua urratu dela deklaratu du.

Antzeko beste epai batzuk: Alajos Kiss Hungariaren aurka, 2010eko maiatzaren 20koa (demandaren zk.: 38832/06)

### 3. [Jivan Errumaniaren aurka](#), 2022ko otsailaren 8koa (demandaren zk.: 62250/19)

*Adineko pertsona baten desgaitasun maila behar ez bezala baloratzea eta, ondorioz, legez zegokion laguntzaile pertsonalik gabe uztea*

GEEHren 8. artikulua (bizitza pribatua errespetatzeko eskubidea): urraketa

Demandatzaileak 87 urte zituen, hanka anputatu zioten, kataratak zituen, entzumen galera eta inkontinentzia. Mugitzeko gurgil-aulki bat behar zuen, baina hura erabiltzeko indarrrik ez zuenez, ohean etzanik zegoen. Semeak bakarrik laguntzen zion, eta pertsona horrek semearen laguntza behar zuen eguneroko jardueretako asko egiteko: higienarako, jateko, etxea txukuntzeko, komunikabideak erabiltzeko edo erosketak egiteko. Gizarte-zerbitzuek bere desgaitasuna baloratuta erdi-mailakoa dela ebatzi zuten; behin betiko balorazioa izango zela eta ez zela berriz aztertuko erabaki zuten. Ondorioz, ez zioten laguntzaile pertsonalik esleitu, legearen arabera laguntzaile bat zegokion arren.

Hasteko, GEEAk aztertu du ea GEEHren 8. artikulua kasu honetan aplikagarria den. Egiatzatu duenez, 8. artikulua ez da jokoan sartzen pertsona baten eguneroko bizitza aldatzen den bakoitzean; salbuespenezko kasuetan bakarrik aplikatzen da, estatuak egindako omisio batek pertsonen garapen askea eta beste pertsonekin harremanak izateko eskubidea mugatzen dituenean. Lehenagoko jurisprudentzia gogora ekarrita, GEEAk gogorarazi du 8. artikulua aplikagarritzat jotzen dela, estatuak egindako jarduketa baten edo ez-egite baten ondorioz, pertsona baten bizimoduaren eta bere buruari buruz daukan ideiarene eta bere nortasunaren artean gatazka sortzen denean. Kasu zehatz honetan, GEEAren iritziz, demandatzailearen bizitza-baldintzak larriak ziren. Agintari publikoen ardura zen pertsona horren autonomia eta duintasunean eta, hortaz, bizitza pribaturako eskubidean eragina zuten ebaluazioak egitea, GEEHren 8. artikulua bermatzen duen moduan. Hori dela eta, demanda aipatu artikulua aplikazio-eremuan sartzen da.

GEEAren arabera, estatuaren betebeharrak positiboen ikuspuntutik heldu behar zaio demandari, GEEHren 8. artikuluari jarraikiz; hau da, aztertu behar da ea estatuak behar bezala jokatu zuen, demandatzailearen bizitza pribaturako eskubidea bermatzeko. Betebeharrak positiboek dagokienez, gizarte, ekonomia edo osasun arloko kontuetan, estatuak, oro har, interpretaziorako tarte zabala dutela gogorarazi du. Hala ere, tarte hori askoz ere txikiagoa da historian zehar diskriminazioa jasan duten gizataldeko pertsonen kasuetan, hala nola desgaitasuna duten pertsonen edo mendetasuna duten adinekoen kasuan.

GEEAk aipatu duenez, Pertsona desgaituen eskubideei buruzko Konbentzioaren 19., 20. eta 28. artikuluek garrantzi berezia dute, eta estatu demandatuak, Konbentzioaren alde den estatua denez, onartu egin du desgaitasuna duten pertsonen eskubidea –bizitza maila egokia eta gizartearen babesa izateko–; era berean, konpromisoa hartu du pertsona horien bizitza independentea eta komunitatean gizarteratzea bultzatzeko.

GEEAren arabera, kasua aztertu zuten gizarte-zerbitzuen eta auzitegien ondorioek -demandatzailea gai zela eguneroko jarduerak laguntzarik gabe egiteko- ez dute zerikusirik benetako egoerarekin eta balorazio-zerbitzuek egin zituzten txostenekin. Gizarte-zerbitzuen batzordeak eta auzitegiek, egindako balorazioan, ez zituzten kontuan hartu alde mediko eta sozial garrantzitsuak, eta soilik arazoetako batean jarri zuten arreta: hanka-anputazioan. Ez zituzten aipatu bizi-baldintzak, laguntza-sarerik eza edo adina, ezta anputazioa 85 urterekin egin ziotela ere. Balorazio horren ondorioz, demandatzailea bere kabuz moldatu behar zuen, agintariek ez baitzieten eskaini inolako laguntza alternatiborik, ukatu zioten laguntzaile pertsonalaren ordez. Gaiak demandatzailearentzat duen garrantzia eta bere zaugarritasuna ikusita, GEEAk uste du agintariek ez zituztela egin zentzuzko jarduketak, demandatzailearen bizitza pribaturako eskubidea benetan babestea bermatzeko.

Lotutako beste epai batzuk: McDonald Erresuma Batuaren aurka, 2014ko maiatzaren 20koa (demandaren zk.: 4241/12)

### Desgaitasunen bat duten pertsonak/Osasuna

1. [N.M. eta beste batzuk, Frantziaren aurka](#), 2022ko otsailaren 3koa (demandaren zk.: 66328/14)

*Jaio aurreko diagnostikoan izandako akatsen ondorioz desgaitasunarekin jaiotako haurraren desgaitasunak eragindako gastuen kalte-ordainik eza, araudiaren atzeraeraginez aplikatu delako*

GEEHren 1. Protokoloaren 1. artikulua (ondasunez bakean gozatzeko eskubidea): urraketa

Haurra 2001ean jaiotzen zen eta gurasoek 2006an erreklamatu zuten kalte-ordaina. 2002an, berena bezalako kalte-ordainaren eskaerak esanbidez baztertzeko zituen lege bat jarri zen indarrean. Araudiaren xedapen iragankorrek atzeraeraginez aplikatzea aurreikusten bazuten ere, xedapen horiek baliogabetu zituen Frantziako Conseil Constitutionnel-ek. Ondorioz, ziurgabetasun juridikoa sortu zen, demandatzaileena bezalako egoerei dagokienez: erantzukizuna sortu zuen egitate legea indarrean jarri baino lehenago gertatu zen, baina kalte-ordainaren eskaera legea indarrean jarri eta gero aurkeztu zen. Estatu Kontseiluak baztertzeko zituen horrelako kasuei loturiko kalte-ordainaren eskaerak; Kasazio Gorteak, aldiz, onartzen zituen eskaera horiek. Demandatzaileen kasuan, Estatu Kontseiluak erabaki zuen kalte-ordaina lege berria indarrean jarri ondoren erreklamatu izanak baztertzeko zuela bizi guztirako kalte-ordaina (desgaitasuna duen haurra zaintzeko gastuengatik) jasotzeko eskaera; legea indarrean jarri aurretiko jurisprudentziak, aldiz, onartu izan zuen kalte-ordain hori.

GEEAk ebatzi du demandatzaileak ondasun baten titularrak zirela, GEEHren 1. Protokoloaren 1. artikulua zentzuan, zuzenbide erkideak eta jurisprudentziak ezarri baitzuten kalte-ordaina jasotzeko eskubidea kaltea gertatu zen unean bertan

sortu zela. Demandatzaileen kasuan, une hori legea indarrean jarri baino lehenago gertatu zen. Lege berria beren kasuari aplikatzeak ondasun horretaz gozatzeko eskubidean esku-hartzea ekarri zuen; izan ere, demandatzaileak ondasun horretaz gabetu zituen. Gainera, xedapen iragankorrak baliogabetzeak araudiaren aldi baterako aplikazioaren gainera zuzenbide erkidegoko arauak aplikatzea ekarri behar izan zuen. Horiek horrela, legedi berria ez zen aplikatu behar legedia indarrean jarri baino lehenagoko egitateen kasuan, kalteak ordaintzeko ekintza ezartzeko data edozein izanik ere. Azkenik, GEEAren iritziz, jurisprudenzian dauden desadostasunak oztopo bihurtzen dira kalte-ordainetik baztertzeari buruzko jurisprudenzia bat zegoela baieztatzen. Hori dela eta, demandatzaileen jabetza-eskubidean egindako esku-hartzea ezin da jo legeak aurreikusitakotzat, GEEHren 1. Protokoloaren 1. artikulua zentzuan; beraz, eskubidea urratu egin da.

Lotutako beste epai batzuk: Maurice Frantziaren aurka, 2005eko urriaren 6koa (demandaren zk.: 11810/03)

## Osasuna

### GEEA

1. [Reyes Jiménez, Espainiaren aurka](#), 2022ko martxoaren 8koa (demandaren zk.: 57020/18)

*Gaixoaren gurasoengandik baimen informatua jaso gabe egindako ebakuntza*

GEEHren 8. artikulua (bizitza pribatua errespetatzeko eskubidea): urraketa

Kasu honetan, ume batek hiru ebakuntza kirurgiko izan zituen garuneko tumore baten ondorioz. Ebakuntzen ostean bere osasun fisikoa eta neurologikoa asko narriatu ziren eta egoerak dagoeneko ez zuen konponbiderik: paralisi orokorra eragin zioten. Gurasoek beren autonomia erkidegoko osasun zerbitzua salatu zuten eta kalte ordain bat eskatu zuten. Alegatu zutenaren arabera, ez zuten baliozko baimen informaturik eman hiru ebakuntzetako bigarrena egiteko, izan ere, informazioa eta baimena ahoz eman ziren, soilik, eta ez idatziz. Hala ere, Justizia Auzitegi Nagusiak eta Auzitegi Gorenak salaketa ezeztatu zuten. Konstituzio Auzitegiaren aurrean aurkeztu zuten babesteko errekurtsioa ez zen izapidetzeko onartu.

Bere Epaian Giza Eskubideen Europako Auzitegiak jaso du Espainiako pazienteen eskubideei eta autonomiari buruzko araudiak (eta hura aplikatzea informazioan aipatutakoari dagokionez) Giza Eskubideei eta Biomedikuntzari buruzko Hitzarmena ezarritako baldintzak betetzen dituela. Bereziki, azpimarratu du beharrezkoa dela baimena ematea, idatziz, jarduketa mediko bakoitzerako. Nolanahi ere, gurasoen salaketaren berri izan zutenean, Espainiako auzitegiek azaldu zuten bigarren ebakuntzak oso lotura estua zeukala lehenengoarekin, baina ez zuten arrazoitu zergatik uste izan zuten bigarren ebakuntzarako ez zela berariazko idatzizko baimenik

behar. Bi ebakuntza horiek helburu bera bazuten ere (behin betiko tumorea kentzea), bigarrena hilabete beranduago egin zen, eta pazientearen osasun egoera bestelakoa zen. Gurasoek zalantzarik gabe baimena eman zutela dioten zantzuetan (medikuek gurasoekin etengabeko harremana izatea, espedientean oharrak jasotzea) oinarritu dira Espainiako auzitegiak, baina zantzu horiek ez dira nahikoak Giza Eskubideen Europako Auzitegiarentzat.

GEEAk gogorarazi du zein garrantzitsua den pazienteen baimena izatea, izan ere, hura ez izateak estatuaren erantzukizuna ekar dezake. Kasu honetan, Espainiako organo judizialen aurrean gurasoek azaldutako baimenari buruzko gaiek ez zuten behar bezalako erantzunik jaso. Europako Hitzarmenak ez du eskatzen, berariaz, idatzizko baimena egoteko, baldin eta baimena zalantzazkoa ez bada. Hala ere, Espainiako araudiaren arabera idatzizko baimena eman behar da, hortaz, organo judizialek behar bezala arrazoitu beharko dute zergatik baimen hori ez egoteak ez dituen urratzen pazientearen eskubideak kasu honetan.

GEEAk aitortu du Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua urratu dela eta gurasoei 24.000 euroko kalte ordaina eman die. Gainera, gurasoek beren errekurtsua ezeztatu zuen Auzitegi Gorenaren Epaia berrikustea eska dezakete.

Lotutako beste epai batzuk: Trocellier Frantziaren aurka, 2006ko urriaren 5eko autoa (demandaren zk.: 75725/01); Codarcea Errumaniaren aurka, 2009ko ekainaren 2koa (demandaren zk.: 31675/04); M.A.K. eta R.K. Erresuma Batuen aurka, 2010eko martxoaren 23koa (demanden zk.: 45901/05 eta 40146/06)

## 2. [Botoyan Armeniaren aurka](#), 2022ko otsailaren 8koa (demandaren zk.: 5766/17)

*Demandatzaileari desgaitasun iraunkorra eragin zion mediku-tratamendua. Medikuen praktika txarra dela eta erreklamazioa aurkezteko eta konpentsazio bat jasotzeko prozedurarik eza*

GEEHren 8. artikulua (bizitza pribatua errespetatzeko eskubidea): urraketarik ez / urraketa

Demandatzailea ospitaleratu zuten, berna-hezur bat hautsi ondoren. Ebakuntza egin zioten eta metalezko inplanteak jarri zizkieten; handik gutxira egindako bigarren ebakuntzan kendu zizkieten inplante horiek, zauria infektatu zitzaiolako. Demandatzaileari trauma osteko osteoarthritis deformatzailea sortu zitzaion orkatilako artikulazioan, eta horrek murriztu zuen pertsona horren mugitzeko gaitasuna. Hainbat kexa aurkeztu zituen medikuen praktika txarra salatzen; halaber, zigor arloko salaketa bat jarri zuen, baina hori artxibatu zen, mediku-txosten batzuk jaso ondoren. Era berean, ebakuntzaren aurretik arriskuak azaldu ez zizkiotela alegatu zuen. Agindu judiziala eman ondoren, ikerketa berriz ireki zen eta egiaztatu zen ebakuntza egin zuen kirurgialaria ez zela espezialista; hala eta guztiz ere, ezin izan zen ezarri sortutako konplikazioen eta ospitaleko pertsonalaren jokabidearen arteko kausazko loturarik. Era berean, ezin zen esan ea konplikazioak saihestuko ziren, tratamendua espezialista batek eginez gero. Halaber, egiaztatu zen metalezko

implanteak ez zirela ospitalean eskuratu, baizik eta aurreko paziente batek dohaintzan emandakoak ziren. Bigarren ikerketa hori ere artxibatu zen. Auzitegiek baieztatu zuten artxibatzea.

GEEAk gogorarazi du osasunerako eskubidea berez ez dagoela aipatuta GEEHean, ezta dagozkion protokoloetan ere; hala ere, estatuek GEEHren 8. artikulutik ondorioztatzen diren betebeharrak positibo jakin batzuk badituzte, gai horri dagokionez: 1) Ospitaleak pazienteen osotasun fisikoa babesteko neurri egokiak hartzea behartzen dituen araudia edukitzea. Bereziki, araudiak bermatu behar du medikuek ebakuntza guztien arriskuak kontuan hartzen dituztela eta, ebakuntza egin aurretik, pazienteei balizko ondorioak azaltzen dizkietela, azken horiek baimen informatua eman dezaten. 2) Zabarkeria medikoaren biktimen eskura jasandako kalteengatik konpentsazioa lortzeko prozedurak jartzea. Dauden baliabideak egokiak izan behar dira egitate garrantzitsuak zehazteko, gaizki jokatu duten pertsonen erantzukizuna eskatzeko eta pazientei konpentsazioa emateko. Estatuek interpretaziorako tarte bat daukate, betebeharrak horiek betetzeko modua ezartzeko.

Kasu honetan, GEEAk egiaztatu du ez zegoela kirurgia orokorraren, traumatologiaren eta ortopediaren espezialitateak arautzen zituen araudirik; hala ere, araututa zegoen medikuek ebakuntza mota jakin batzuetarako dagokion espezialitateko baimena behar zutela. Ospitaleetan protesi-elementuak eskuratzeko prozedura ere ez zegoen araututa. Alabaina, arau-esparruan gabezia batzuk egotea ez da nahikoa GEEHren babesa erakartzeko. Gabezia horiek kasu zehatzean pazienteari kaltea eragin ziotela frogatu behar da. Kasu honetan, GEEAren iritziz, ez dago horren ebidentziarik: auzitegi-medikuen txostenen arabera, ebakuntza zuzenki egin zen eta geroko konplikazioek ez zuten zerikusirik kirurgialaria espezialista ez izatearekin, ezta pertsonalaren jokabidearekin ere.

Indarreko araudiak aipatzen zuen pazienteen eskubidea –arriskuen berri jasotzeko–. Pazientearen onespena, aipatutako araudiaren arabera, beharrezkoa zen proposatutako tratamendua egiteko. Hortaz, arau-esparruak ez zuten hutsunerik zentzu horretan.

Kompentsazioa jasotzeko mekanismo eraginkorra egoteari dagokionez, GEEAk gogorarazi du GEEHak ez duela mekanismo konkretu edo berezi bat egotea eskatzen. Zentzu horretan, GEEAk onartzen du estatuek kontuan dutela medikuak justifikaziorik gabeko erantzukizun salaketan aurrean jartzeko arriskua eta, ondorioz, “babes-medikuntza” praktikatzea. Osotasun fisikoan nahi gabe eragindako kalteen kasuan, nahikoa izango da errekurso zibilen sistema bat egotea, erantzukizunak zehaztea eta konpentsazioa ematea ahalbidetzen duena. Era berean, errekurso penalak edo diziplina-erantzukizuna egon daitezke, baina ez dira nahitaezkoak. Kasu honetan, GEEAk ez du zalantzan jartzen egindako ikerketetan egitateak zehazteko modua, baina ikusi du ez zirela aztertu demandatzailearen alegazioak, baimenik ezari buruzkoak. Jarri zioten protesiari buruzko alegazioak ere ez ziren aztertu; demandatzailearen arabera, ez zen aztertu protesi horien egokitasuna (pertsona bati jartzeko). Horiek horrela, burututako ikerketek ez zuten bete GEEAren



jurisprudentiak ezartzen duen zehaztasunaren baldintza. Gainera, Auzitegiaren arabera, ez zegoen demandatzaileak jasandako kaltea konpentsatzea ekarri ahal zuen errekurtso zibilik, ezta diziplinazkorik ere. Bi alderdi horiek direla eta, GEEHren 8. artikulua urratu dela adierazi du.

Lotutako beste epai batzuk: Codarcea Errumaniaren aurka, 2009ko ekainaren 2koa (demandaren zk.: 31675/04); Spyra and Karnczkowski Poloniaren aurka, 2012ko irailaren 25ekoa (demandaren zk.: 19764/07); Csoma Errumaniaren aurka, 2013ko urtarrilaren 15ekoa (demandaren zk.: 8759/05); S.B. Errumaniaren aurka, 2014ko irailaren 23koa (demandaren zk.: 24453/04)

## Ingurumena

### EBJA

1. [C-300/20, Bund Naturschutz in Bayern, Landkreis Rosenheim-en aurka](#), 2022ko otsailaren 22koa
  - Plan eta programa jakin batzuek ingurumenean dituzten eraginak ebaluatzeko 2001/42/EE Zuzentarauaren 3. artikulua, 2. apartatuko a) letra eta 4. apartatua

*Paisaia babesteko esparru bati buruzko ordenantza, babestutako esparrua murriztu zuena, ingurumen-eraginaren ebaluazioa egin gabe eta ordenantzak ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzakeen jakiteko azterketarik gabe*

Lehenik, EBJAk erabaki du auzi nagusian aipatutakoa bezalako ordenantza bat, debeku orokorrak ezartzen dituen eta jarduera batzuetarako baimena eskatzen duena, "plan edo programatzat" jo daitekeela 2001/42 Zuzentarauaren 2.a) artikulua zentzuan, egoeren kopuru zehaztugaberako aginduak dituen araudi orokorra eta abstraktua izan arren. Hain zuzen ere, abstraktutasun mailak eta gune geografiko bat eraldatzeko helburua betetzeko asmoak adierazten dute horrelako tresna baten dimentsio "programatzaile" eta "planifikatzailea".

Zuzentarauaren helburua kontuan hartuta (ingurumenaren babes maila altua bermatzea), zuzentarauak aipatutako egintzen definizioak jasotzen dituzten eta horrela bere aplikazio-eremua mugatzen duten xedapenak zentzu zabalean interpretatu behar dira. 3.2.a) artikuluari jarraikiz, xedapenean aipatutako sektoreen inguruan prestatzen diren eta, gainera, 2011/92 Zuzentarauaren I. eta II. eranskinetan zerrendatutako proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen duten plan eta programa guztien kasuan, beren ingurumen-inpaktua ebaluatu behar da.

Honako sektore hauek dira: nekazaritza, basogintza, arrantza, energia, industria, garraioa, hondakinen kudeaketa, ur-baliabideen kudeaketa, telekomunikazioak, turismoa, hiri- eta landa-lurraldearen antolaketa eta lurzorua erabilera. Azken bi



sektore horiek ez dagozkie soilik lurraldearen zonakatzeari eta zona bakoitzean onartutako jarduerak definitzeari, baizik eta irispide zabalagoa daukate. Plan edo programa bat zuzentzarauaren aplikazio-eremukoa dela joko da, baldin eta sektore horietako bat aipatzen badu edo horietako bati buruzkoa bada. Plan edo programa baten helburu nagusia ingurumena edo paisaia babestea izateak ez du eragozten zerrendatutako sektoreetako bati buruzkoa izatea edo horietako bat aipatzea.

Proiektuak baimentzearen baldintzari dagokionez, "proiektutzat" jotzen dira tokiaren errealitate fisikoa aldatzen duten obrak edo esku-hartzeak, 2011/92 Zuzentzarauaren 1.2.a) artikuluan definitutako eta I. eta II. eranskinetan zehaztutako moduan. "Proiektuak etorkizunean baimentzeko esparru" bat baimena emateko eta proiektu bat edo batzuk gauzatzeko irizpide eta baldintzen multzoa da, batez ere, kokapena, ezaugarriak, dimentsioak eta funtzionamendu-baldintzak, baita arau eta kontrol-prozedura aplikagarriak ere definitzen dituena.

Hori dela eta, 2001/42 Zuzentzarauaren 3.2 artikulua esparrukotzat jotzeko, plan edo programa batek alde horiek guztiak ezarri beharko ditu eta, hala egiten badu, dagokion ingurumen-eraginaren ebaluazioa egin beharko da. Aitzitik, 2011/92 Zuzentzarauaren I. eta II. eranskinetan zerrendatutako proiektuen edukiari, lanketari eta gauzatzeari buruzko nahikoa zehatzak diren arauak ezartzen ez dituen plan edo programa bat ez da joko 2001/42 Zuzentzarauaren 3.2.a) artikuluan sartutakotzat eta ez du ingurumen-eraginaren ebaluaziorik beharko. Zuzentzarauaren 3.4 artikulua esparrukotzat ere jotzen ez denez, ez dagokio plan edo programa horrek ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzakeen zehazteko betebeharra.

## 2. [C-463/20, Namur-Est Environnement ASBL, Région wallonne-ren aurka](#), 2022ko otsailaren 24koa

- Zenbait proiektu publiko eta pribatuk ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioari buruzko 2011/92/EB Zuzentzarauaren 1. eta 2. artikulua eta 5. artikulutik 8. artikulura bitartekoak

*Salbuespena, araudian aipatutako animalia- eta landare-espezieak babesteko neurriei dagokienez, kare-agregakinen harrobi bat ustiatzeko. Aurkeztutako proiektua baimentzeari buruzko ebazpenaren salbuespena, bereizirik emandakoa (ebazpenak ez zuen proiektua baimendu). Herritarren parte-hartzea salbuespenari buruzko erabakian, proiektua baimentzeko prozeduran integratzen denean.*

Epai honetan azaltzen den lehenengo kontua honako hau da: ea babes-neurriak salbuesteko baimena –92/43 Zuzentzarauaren 16. artikuluaekin bat, 2011/92 Zuzentzarauaren 1.2.a) artikulua araberako proiektu bat gauzatzeari jasota dagoen proiektu hori baimentzeko prozeduran, 2011/92 Zuzentzarauaren 1.2.c) artikulua zentzuan. Kontua honako kasu honetarako planteatzen da: proiektua salbuespena lortu gabe ezin da egin, eta proiektua egiteko baimenak ingurumenean

izan ditzakeen ondorioak zorroztasun handiagoz ebalua ditzake (baliteke proiektua egiteko baimena ukatzea, salbuespena lortu arren).

Baimena 2011/92 Zuzentarauaren 1.2.c) artikuluan definitzen den moduan, egintza ezberdina da, 92/43 Zuzentaruaren aurreikusitako salbuespena ematea baino. Bigarren horrek, beraz, ez da proiektua gauzatzeko baimenaren baliokidea. Hala ere, proiektua gauzatzeko baimena edo ukapena osatzen duela esan daiteke. Baimena proiektu baten eskaeraren inguruko erabakia hartzeko prozedura –izapidetzeko beharrezkoak diren jarduketa guztiak integratzen dituen– amaitzen duen egintza da. Aipatu prozeduran, agintari eskudunak kontuan izan behar ditu, modu orohartzailean, betebeharrak bikoitza –ebaluazioa eta baimena– bete behar duten proiektuek ingurumenean izango dituzten ondorioak. Izan ere, 2011/92 Zuzentarauaren 2.1 artikulua ingurumenean eragingandako “ondorio nabarmenak” eta 3. artikulua proiektuen ondorio “zuzenak eta zeharkakoak” aipatzen ditu. Barnean sartuta daude faunan eta floran nabaritutako ondorioak. Hori dela eta, 92/43 Zuzentaruak ezarritako babes-betebeharrak dagokienez, proiektuak berekin salbuespen bat lortzea badakar, ebaluazioak kontuan izan beharko ditu proiektuak faunan eta floran eragingo dituen ondorioak.

Proiektu batek ingurumenean izango dituen ondorioen ebaluazioa estatu mailako baimena emateko prozeduran txerta daiteke; beraz, ez da egin behar prozedura bakar batean, ezta horretarako berariaz sortu den prozedura batean ere. Estatuak badaukate tartea prozeduraren baldintzak ezartzeko. Alabaina, edonola ere, ingurumen-eraginaren ebaluazio osoa egin behar da, proiektua gauzatzeko baimenaren inguruko erabakia hartu baino lehenago. 2011/92 Zuzentarauaren 3. artikuluari jarraikiz, proiektu batek ingurumenean izango dituen ondorioak ebaluatzerakoan, kontuan izan behar da banakako ondorioen arteko elkarreagina. Ebaluazio orokor horren ondorioz, agintari eskudunak ondoriozta dezake ingurumenean sortuko diren ondorio guztien multzoa banakakoak baino zorroztasun handiagoz (edo txikiagoz) aztertu behar dela. Ebaluazio partzialak eta ebaluazio orokorra egiteaz eta baimena emateaz agintari ezberdinak arduratzen badira, behin betiko ebazpen orokorra ematen duen agintariaren erabakia ezin da besteek aurretik juzgatua izan. Interpretazio honekin, 2011/92 Zuzentarauaren helburu orokorra bete daiteke: ingurumena babesteko maila altua.

Ondorioz, 92/43 Zuzentarauaren 16. artikulua arabera espezieen babesari aplikatzen zaizkion neurriak dagokienez salbuespen bat baimentzen duen erabakia proiektu bat baimentzeko prozeduran jasota dago [2011/92 Zuzentarauaren 2.a) eta 1.2.c) artikulua], proiektua ezin bada egin sustatzaileak aurretik lortutako salbuespenik gabe, eta proiektua baimentzen duen agintariak salbuespena onartu duenak baino ebaluazio zorrotzagoa egin ahal badu.

Babesari buruzko betebeharrak betetzeko salbuespena onartzeko prozedura batean -proiektu baten inpaktuaren ebaluazioa egiteko eta baimena emateko prozesuaren baitan– herritarren parte-hartzeari dagokionez, uztartu behar dira parte-hartze goiztiararen baldintza eta parte-hartze eraginkorren baldintza (2011/92 Zuzentarauaren 6. artikulutik 8. artikulura bitartekoak). EBJAk ondorioztatu duenez,

zuzentarauaren 6. artikulua ez du eskatzen herritarren parte-hartzea proiektuak ingurumenean izango dituen ondorioen zati bat ebaluatu aurretik (kasu honetan, babes-betebeharrak betetzeko salbuespenari buruzko erabakia), baldin eta parte-hartzea eraginkorra bada; hau da, proiektua baimendu aurretik burutzen da, jendeari iritzia modu baliagarrian eta osoan adierazteko aukera ematen dio, eta agintari eskudunak parte-hartze hori osorik kontuan hartu ahal du.

3. [C-177/19 P a C-179/19 P, denak batera, Alemania eta beste batzuk / Batzordea, 2022ko urtarrilaren 13koa](#)

- Batzordearen 2016/646 (EB) Erregelamendua, 692/2008 (EB) Erregelamendua aldatzen duena, turismo eta ibilgailu komertzial arinetatik eratorritako isurpenei dagokienez (Euro 6)

*Kasazio-errekurtsoa, Auzitegi Orokorraren epaiaren aurka; epai horren bidez onetsi zen Pariseko, Bruselako eta Madrilgo udalen deuseztatzeko errekurtsoa, Batzordearen 2016/646 (EB) Erregelamenduaren II. eranskinaren 2. puntuaren aurka; puntu horretan, behin betiko CFpolluant adostasun-faktorearen eta behin-behineko CFpolluant adostasun-faktorearen balioa nitrogeno oxidoen (turismo eta ibilgailu komertzial arinetatik eratorritako isurpenak) masarekiko finkatu ziren. Deuseztatzeko errekurtsoa onartezintzat jo zen.*

2016/646 (EB) Erregelamendua behin betiko adostasun-faktorea finkatzen du nitrogeno oxidoen masarako: 1, gehi 0,5eko marjina; zehazten duenez, marjina hori "PEMS ekipamendua neurketa egin bitartean sortutako zalantzak kontuan hartzen dituen parametroa da; zalantzako balio horiek aldi behin berriz aztertu behar dira, eta berrikusiko dira, PEMS prozeduraren kalitatea hobetuz gero edo aurrerapen teknikoa lortuz gero". Fabrikatzaileak eskatzen badu, bost urte eta lau hilabeteko epean behin-behineko adostasun-faktorea aplikatu daiteke: 2,1.

Errekurtsoa jarri zuten hiru udalek lehen instantzian, Auzitegi Orokorraren aurrean, alegatu zuten Batzordeak ezin zituela ezarri, erregelamendu baten bidez, 715/2007 Erregelamenduaren Euro 6 arauan ezarritako mugak gainditzen dituzten balioak (nitrogeno oxidoen emisioenak). Auzitegi Orokorrak deuseztatu zuen 2016/646 (EB) Erregelamenduaren II. eranskinaren 2. puntua, adostasun-faktore horiek ezartzei dagokionez.

EBJAK gogorarazi du eskualdeko eta tokiko erakundeek ezin dutela errekurtsorik jarri Batasunaren legegintzako egintzen aurka, egintza horiek ez badatoz bat EBFren 263. artikulua 4. paragrafoan aipatutako kasuetako batekin, aipatu erakundeak ezin baitira estatu kideen mailan jarri estatuei aitortzen zaien legitimazioa erakunde horiei ere aitortzeko, baldintza gehiagorik gabe, artikulua bereko 2. paragrafoa betez. Hori dela eta, erakunde horiek legegintzako egintza bat deuseztatzeko errekurtsoa jarri ahal izateko, egintzak zuzenean eragiten diela frogatu behar dute.

2007/46 Zuzentarauaren 4.3 artikulua eragozten die estatu kideei ibilgailuen matrikulazioa, salmenta, zerbitzuan jartzea edo bide-zirkulazioa zuzentarauak araututako fabrikazio- edo funtzionamendu-alderdiekin lotutako arrazoiengatik debekatzea, murriztea edo galaraztea, baldin eta ibilgailuek betetzen badituzte zuzentaraan ezarritako baldintzak. Udalek argudiatu zuten artikulua horrek mugatzen zituela beren eskumenak, beren hirietan zirkulazioa ibilgailuek isurtzen dituzten emisio kutsatzaileen arabera murrizteko. Hala ere, EBJAk ondorioztatu duenez, xedapen hori ez da oztopo estatuek ibilgailuen zirkulazioa debeka dezaten, "bide zirkulazio" adierazpenak ez baitu helburu hori. Beraz, araudi horrek ez die zuzenean eragiten udal errekurtsogileei; udalek Auzitegi Orokorrean jarri zituzten deuseztatzeko errekurtsioak onartezinak zirela deklaratu du EBJAk.

## Datuak babestea

### EBJA

1. [C-175/20, SS SIA, Valsts ieņēmumu dienests-en aurka](#), 2022ko otsailaren 24koa
- Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 2., 4., 5., 6. eta 23. artikulua

*Zerga-administrazioak iragarkiak Internetez argitaratzeko zerbitzuen hornitzaile bati zuzendutako eskaera, datu pertsonalak atzitzeko aukera emateko: besteak beste, iragarkietan agertzen diren ibilgailuen txasis-zenbakia eta saltzailearen telefono-zenbakia.*

EBJAren arabera, zerga-agintari batek Internet bidezko iragarkien hornitzaile bati txasis-zenbakia edo saltzailearen telefono-zenbakia bezalako datuak eta iragarkiari lotutako beste datu batzuk emateko eskatzen badio, hornitzailea datuak ematera legez behartuta dagoela ahaztu gabe, datuen "bilketa" prozesua da, 2016/679 Erregelamenduaren 4.2 artikulua zentzuan. Gainera, datu horiek helaraztea eta eskuratzeko aukera ematea iragarkien hornitzaileak burutzen duen "tratamendua" da, artikulua beraren arabera. Beraz, eragiketa horiek Erregelamenduaren aplikazio-eremuan daude, erregelamenduaren 2.1 artikuluaekin bat. Bigarrenik, EBJAk ebatzi du eragiketa horiek ez daudela babestuta Erregelamenduaren 2.2.d) artikulua bere aplikagarritasunari jartzen dion salbuespenaren bidez. Hori dela eta, datuak biltzeko eragiketa horiek Erregelamenduaren 5. artikulua ezarritako printzipioak bete beharko dituzte.

Erregelamenduaren 23. artikulua aukera ematen die estatuei dagozkion lege-neurriak har ditzaten 5. artikuluan ezarritako betebeharrak eta eskubideen irispidea mugatzeko, 12. artikulutik 22. artikulura bitartekoetan jasotako eskubide eta betebeharrekin bat etortzea eta neurrizkoak izatea lortze aldera. Lege-neurri horiek ez dira nahitaez parlamentarioak izan behar (41. kontuan hartuzkoa). Hala ere, Oinarrizko Eskubideen Gutunaren eskakizunei (7., 8. eta 52. artikulua) eta EBJAren

jurisprudentiari jarraikiz, lege-neurri horiek argiak eta zehatzak izan behar dira, eta interesdunek aurreikus dezaketen aplikazioa izan behar dute. Batez ere, interesdunek Erregelamenduak ematen dizkieten eskubideen irispidea muga dezaketen inguruabarrak eta egoerak identifikatzeko gai izan behar dute. Ezaugarri horiek dituen eta zerga-administrazioa horretarako gaitzen duen oinarri juridikorik ez dagoenez, ez estatuko zuzenbidean, ez Batasuneko Zuzenbidean, zerga-administrazio batek ezin ditu Erregelamenduaren 5. artikulua xedatzen duenari egiten zaizkien salbuespenak ezarri.

Zerga-administrazio baten eskaerak, kasu honetan bezalakoak, datu-bilketa betiere helburu zehatz, esplizitu eta legezkoak betetzeko egiten dela bermatu behar du (legezko tratamendua bermatzea) [5.1.b) artikulua]. Eskaerak tratamenduaren helburua argi eta garbi adierazten bada, eta tratamendua interes publikoaren izenean egiteko bat betetzeko edo zerga-administrazioari esleitutako botere publikoak erabiltzeko beharrezkoa bada, beteko da 6. artikuluan aipatutako zilegitasun-baldintza. Hain zuzen ere, zerga-bilketa eta zerga-iruzurraren aurka borrokatzea, 6.1 artikulua ondo etarako, interes publikoaren izenean egiten diren eginkizuntzat jo behar dira.

Baldintza horiek betetzeaz gain, tratamenduaren arduradunak (kasu honetan, zerga-administrazioak) ezin ditu datu pertsonalak modu orokorrean bildu, bereizi gabe: Erregelamenduaren 5.1.c) artikuluari jarraikiz, datu egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurria mugatuak izan behar dira, haien tratamenduaren helburuen arabera. Tratamenduaren arduradunak frogatu behar du 5.1 artikuluko printzipioak errespetatzen dituela, 5.2 artikuluan aipatzen den erantzukizun proaktiboaren printzipioari jarraikiz; beraz, kasu honetan, zerga-administrazioari dagokio bere eskaera egiterakoan, bildu beharreko datu pertsonalen kopurua ahal den heinean minimizatzen saiatu zela frogatzea. Halaber, datu horiek biltzeko aldia mugatu behar du, behar-beharrezkoa izan dadin. Eskaeran denbora mugarik adierazten ez bada, baldintza hori ezin izango da betetzat jo; hori frogatzea ere tratamenduaren arduradunari dagokio. Era berean, agintari publikoak kasu honetan bezalako eskaerak egiteko gaitzen dituen barne-zuzenbideko araudiak arau argi eta zehatzak ezarri beharko ditu, neurriaren irispide eta aplikazioa erregulatzeko eta gutxieneko baldintzak ezartzeko. Araudi horrek agindu-izaera izan behar du eta azaldu behar du zer egoeratan eta zer baldintzaren arabera egin daitekeen datu horien tratamendua. Irizpide objektiboak hartu behar ditu oinarri, partikular edo enpresa bat erabiltzaileen datu pertsonalak ematera behartzeko inguruabarrak eta baldintzak zehazteko.

## 2. [C-245/20, X eta Z, Autoriteit Persoonsgegevens-en aurka](#), 2022ko martxoaren 24koa

- Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 55. artikulua, 3. apartatua

*Jurisdikzio-organoaren komunikazio atalak prozedura judicial bateko aldean datu pertsonalak kazetariei ematea "Epaile-eginkizunetan jardutea" definitzea, datuak babesteko estatuko agintarien eskumena zehazteko, organo judizialekin konparatuta*

2016/679 Erregelamenduaren 2.1 artikulua arabera, Erregelamendua datu pertsonalen tratamendu guztiei aplikatzen zaie, tratamendu horiek guztiz edo zati batean automatizatuak badira eta datu pertsonalak fitxategi batean gordeta badaude edo gordeko badira, tratamendu-eragilearen identitatearen araberrako bereizketak egin gabe. Horrek barnean hartzen ditu, agintari publikoei dagokienez, agintari judizialak ere (ikus Erregelamenduaren 20. kontuan hartuzkoa).

55.3 artikulua baztertzen du kontrol-agintarien eskumena, "eginkizun judiciala betetz" diharduten epaitegiek egiten dituzten datu-tratamenduei dagokienez. 20. kontuan hartuzkoak zehazten duenez, tratamenduko eragiketa horien kontrola sistema judicialaren barruan ezarritako berriazko erakundeen esku uzteko aukera egon behar da, botere judicialaren independentzia babesteko, dagozkien eginkizunak –"erabakiak hartzea barne"– betetzen dituztenean. Hortaz, babestu nahi den independentzia ez da soilik erabakiak hartzea.

Horiek horrela, 55.3 artikulua tratamendu-eragiketak aipatzen dituztenean, ez da jurisdikzio-organoek auzi jakin batzuen markoan burutzen dituzten tratamenduez bakarrik ari, baizik eta, zentzu zabalagoan, jurisdikzio-organoek beren jurisdikzio-jardueraren markoan egiten dituzten tratamendu-eragiketen multzoaz ari da. EBJAk ondorioztatu du kontrol-agintarien eskumenetik at geratzen direla, 55.3 artikuluari jarraikiz, auzitegiek ezagutzen dituzten kontuen berri emateko politikaren baitan burututako datu-tratamenduak. Zalantzarik gabe, datuen tratamendu hori funtzio judiciala betetzeari lotuta dago.

## Genero-berdintasuna/Gizarte Segurantzza

### EBJA

1. [C-389/20, CJ, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren aurka](#), 2022ko otsailaren 24koa
- Gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa gizarte-segurantzaren arloan pixkanaka aplikatzeari buruzko Kontseiluaren 79/7/EEE Zuzentarauaren 4. artikuluko 1. apartatua

*Gizarte Segurantzako araubide orokorrean dauden etxe-langileak langabezia-prestaziotik kanpo uztea*

Auzia planteatu zen, etxe-langile batek langabeziako prestazioa jasotzeko kotizatzen uzteko eskatu zionean Gizarte Segurantzari. Eskaera ez zen onartu, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 251.d) artikulua esanbidez ukatzen baitie

langabezia-babesa etxe-langileen araubide berezian dauden pertsonen. Gizarte Segurantzaren ebazpenaren aurka demanda jarrita, auzitegiak erabaki zuen Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari galdetuko ziola ea Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 251.d) artikulua bat datorren gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa gizarte-segurantzaren arloan pixkanaka aplikatzeari buruzko 79/7/EEE Zuzentarauarekin.

Justizia Auzitegiak egiaztatu du etxe-langileak gizarte segurantzaren araubide orokorrean sartuta daudela, eta, horren barruan, sistema berezi bat daukatela. Araubide orokorrean, besteren konturako lan egiten duten afiliatuak % 49 dira emakumeak, eta % 51 gizonak. Etxe-langileen sistema berezian, aldiz, emakumeak % 95'5 dira, eta % 4'5 gizonak. Horrek esan nahi du, berriz ere araubide orokorrean, etxe-langileak diren emakumeak afiliatu guztien % 4'72 dira; etxe-langileak diren gizonak, aldiz, afiliatu guztien % 0'21 baino ez dira. Auzitegiak ondorioztatu duenez, langabezia-prestaziorako eskubiderik gabe utziz gero, araubide orokorrean sartutako etxe-langileak diren emakumeak egoera txarragoan geratzen dira gizonen aldean: langabezia-prestaziorik gabe uztea pertsona guztiei badagokie ere, neurri askoz ere handiagoan emakumei eragiten die. Hortaz, zeharkako bereizkeria da.

Gainera, Auzitegiaren arabera, emakumeentzat txarra den bereiztea ez dago justifikatuta, egon baitaude beste sektore batzuk, etxe-langileena bezalakoak (adibidez, enpresek kontratatutako garbitzaileak), langabezia-babesa badutenak. Horregatik, zalantzan jartzen da bazterketaren bidez lortu nahi izan diren helburuek (etxe-langileen kontratazio legala sustatzea, sektoreko enplegu maila altuari eustea) benetan eskatzen dutela langabezia-babesik gabe uztea. Gainera, bazterketa neurritz kanpokoak dirudi, beste prestazio batzuk jasotzeko eskubideaz gabetzea ekartzen duelako, prestazio horiek ezin baitira jaso, alde aurretik langabezia-prestazioa agortzen ez bada.

## Espetxeratuak

### GEEA

1. [Sy, Italiaren aurka, 2022ko urtarrilaren 24koa](#) (demandaren zk.: 11791/20)

*Toxikomaniak larriagotutako nahasmendu bipolarra duen pertsona bat bi urtez espetxe arrunt batean egotea, baldintza txarretan eta plan terapeutikorik gabe*

GEEHren 3. artikulua (torturarik edo tratu anker edo apalesgarrik ez jasateko eskubidea): urraketa

Demandatzailea espetxe arruntean sartuta zegoen, ebazpen judizialek –segurtasun-neurriak betearazteko– egoitza batean sartzea agindu zuten arren. Lekualdatzea ez zen burutu, egoitzetan lekurik ez zegoelako. Halaber, betearazi gabe geratu zen



pertsona hori aske uztea (lekualdatzea atzeratzen zelako) agintzen zuen auto judiziala.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ondorioztatu du, azterketa espezializatuen eta emandako ebazpen judizialen arabera, demandatzailearen osasun mentalaren egoera bateraezina zela espetxean egotearekin. Hortaz, pertsona hori espetxe arruntean egotea ez da bateragarria GEEHren 3. artikuluekin. Gainera, ez zen abiatu espetxean bere patologia tratatzeko plan terapeutikorik.

2. [Vool y Toomik, Estoniaren aurka, 2022ko martxoaren 29koa](#) (demandaren zk.: 7613/18 eta 12222/18)

*Behin-behineko espetxealdian dauden pertsonen 24 eta 72 ordu bitarteko familia-bisitaldiak, gainbegiratu gabekoak, legez debekatzea; horrelako bisitaldiak baimenduta daude askatasunaz gabetzeko kondena betetzen duten pertsonen kasuan*

GEEHren 14. artikulua (GEEHren eskubideez baliatzean diskriminatua ez izateko eskubidea), GEEHren 8. artikuluari (bizitza familia errespetatzeko eskubidea) loturik: urraketa

Indarreko araudiak eragotzi zien demandatzaileei bizikide diren bikotekideen iraupen luzeko bisitak jasotzea, behin-behineko espetxealdian egon bitartean.

Aurreko jurisprudentzia aipatuz, senideen bisitei dagokienez, GEEAk adierazi du antzeko egoeran daudela behin-behineko espetxealdian dauden pertsonak eta kondena betetzen ari denak. Hortaz, GEEHren 14. artikulua aplika daiteke, pertsona talde biak parekatu ahal direlako. Kasu honetan, argi dago tratu-bereizketa: behin-behineko espetxealdian daudenek ezin dituzte senideen iraupen luzeko bisitak jaso; kondena betetzen dutenek, aldiz, bai, jaso ditzakete bisitak. Tratu-bereizketa horren justifikazioari dagokionez, GEEAk onartu du teoriarik, behin-behineko espetxealdian dauden pertsonen kasuan, senideen bisitak debeka daitezkeela kasuaren instrukzioa oztoporik gabe egitea bermatzeko legezko helburua betetzearren.

GEEAk gogorarazi duenez, espetxeratuen ezkontideen bisitei buruzko eman zuen jurisprudentziaren arabera, estatuek interpretaziorako tarte zabala dute, GEEHk ez baitie ezartzen horrelakoak aurreikusteko betebeharririk. Hala ere, bi kasu horietan, antzeman du estatuko auzitegiek ez zutela kontuan izan behin-behineko espetxeratzeak demandatzaileen familia-bizitzan izaten zuen inpaktua edo modu orokorrean jokatu zutela, iraupen luzeko bisitaldien debekua bereziki aztertu gabe.

Lehenengo kasuan, behin-behineko espetxealdia justifika daiteke, delitua berriro egitea saihesteko. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak onartzen du akusatua delituak eta krimen antolatua jokabidea kontuan hartuta, pentsatzekoa zela bikotekidea instrukzioa oztopatzeko erabiliko zutela. Hala ere, arrazoi horiek ez dirudite nahikoak bisitaldiak bi urtez debekatzea justifikatzeko, batez ere, lehenago ezarritako mugapenak –harremani dagozkienak– dagoeneko kendu zirela kontuan



hartuta. Behar besteko arrazoiak emateko beharra areagotu egiten da denbora pasa ahala.

Bigarren demandatzailearen kasuan, behin-behineko espetxeratzea justifikatzeko, delitua berriz egitea saihestu beharra eta ihes egiteko arriskua aipatu ziren. Bikotekidearen iraupen luzeko bisitak jasotzea debekatzeko arrazoiak emanda, berez ez zen aipatu bere bikotekidea, ezta zigor-prozesua kaltetzeko arriskua, baizik eta etorkizunean egin ditzakeen delituak prebenitzea, oro har. Ez zen frogatu bikotekidea demandatzailearen delituetan nahasita egon zenik. Berriro ere, arrazoi horiek ez dira nahikoak behin-behineko espetxealdi osoan bisitaldiez gabetzea justifikatzeko.

Tratu-bereizketa behar bezala justifikatu ez denez, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak deklaratu du urratu dela GEEHren 14. artikulua, 8. artikuluari lotuta.

Antzeko beste epai batzuk: Chaldayev Errusiaren aurka, 2019ko maiatzaren 28koa, demandaren zk.: 33172/16

3. [Laniauskas Lituaniaren aurka](#), 2022ko martxoaren 29koa (demandaren zk.: 48309/19)

*la-ia itsua den pertsona batek zortzi urtez askatasunaz gabetzeko zigorra espetxe-ospitale batean betetzea. Estatuko auzitegiek ukatu diote aske uztea*

GEEHren 3. artikulua (torturarik edo zigor eta tratu anker edo apalesgarririk ez jasateko eskubidea): urraketarik ez

Demandatzaileak alegatu zuenez, egon zen espetxe-ospitalea ez zegoen egokituta pertsona itsuentzat; ez zuen jasotzen bere eguneroko beharrak eta jarduerak egiteko laguntzarik, eta zailtasun asko zituen zeregin horiek egiteko. Adibidez, ez zegoen ukimenezko seinalizaziorik. Gainera, ikusmenik ezak eragozten zion zentroko ekintza sozialetan parte hartzea. Mediku tratamendu desegoki bat ere salatu zuen.

Osasun-arazoak dituen pertsona bat askatasunaz gabetzea GEEHren 3. artikuluekin bateragarria den erabakitzeke, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak hiru faktore hartzen ditu kontuan: osasun-egoera eta askatasun-gabetzeak egoera horretan duen eragina; mediku-tratamenduaren egokitasuna; eta pertsona aske utzi behar den ala ez.

GEEAk egiaztatu duenez, ez dago demandatzailearen ikusmenak barneratu bitartean edo barneratzearen ondorioz txarrera egin duela frogatzen duen ebidentziarik. Halaber, ez du frogabiderik topatu mediku-tratamendua nahikoa edo desegokia zela esateko, demandatzailearen alegazio guztiak orokorrak zirelako; izan ere, demandatzaileak ez zuen zehaztu zein tratamendu atzeratu edo ukatu zioten. Bestalde, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak onartu egin ditu espetxeko instalazioak pertsona itsuentzat egokituta ez egoteari buruzko alegazioak. Hala ere,

estatuko auzitegiek –demandatzaileak ezeztatu ez zituen frogen multzoa oinarri hartuta– atera zituzten ondorioen arabera, demandatzaileak bere jarduerak era independentean egin ahal zituen eta ez zuen aurkeztu kexarik espetxearen administrazioan.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ondorioztatu du GEEHren 3. artikulua ez dakarrela ondorioz betebeharrak orokorrik osasun-arazoak dituzten barneratuak aske uzteko; halaber, kasu honetan, demandatzailearen itsumenak ez zuen eragiten askatasun-gabetzea eta aipatutako artikulua bateratzeko ezintasunik.

4. [Maslák Eslovakiaren aurka \(2. zk.\)](#), 2022ko martxoaren 31koa (demandaren zk.: 38321/17)

*Segurtasun handiko espetxe-erregimeneko kondena espetxe desberdinetan betetzea*

GEEHren 8. artikulua (bizitza pribatua eta familiakoa errespetatzeko eskubidea):

Segurtasun handiko erregimenaren ondorioz, murriztuta zeuden beste giltzaperatuekiko harremanak, instalazio komunetan egotea, kirol-instalazioak erabiltzea eta telebista ikustea, baita bisitak jasotzeko eskubidea ere (ahaide hurkoak bakarrik).

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak gogorarazi du espetxeratuek jarraitzen dutela GEEHak ematen dizkieten eskubideak izaten. Askatasunaz gabetzeak hainbat mugapen ekartzen baditu ere, horrek ez du esan nahi no eskubideak galtzen direnik; beraz, mugapen horiek kasuan-kasuan justifikatu beharko dira.

Segurtasun handiko erregimena ezartzeak eragotzi zuen demandatzailearen bizitza pribaturako eta familia-bizitzarako eskubidea. Eragozte horren legearekiko adostasuna aztertzean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak egiaztatu du oraingo xedapenek ez dutela zehazten erregimena justifikatzen duten prebentzio- eta segurtasun-arrazoien izaera: dirudenez, praktikan, arrazoi horiek kasuz kasu erabakitzen dira eta espetxe-administrazioak zuzentasun maila jakin bat dauka. Hori dela eta, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak aztertu du ea zuzentasun horren norainokoa eta gauzatzeko modua nahikoa argi definituta zeuden demandatzaileari berme egokiak emateko arbitrariotasunaren aurrean. GEEAk egiaztatu duenez, demandatzaileari eman zitzaizkion arrazoi bakarrak –segurtasun handiko erregimena ezartzeko– honako hauek zirela: aurreko kondena, beste delitu batzuei lotutako zigor-azpiak eta bere nortasunaren ezaugarriak. Administrazio-espeditente batean edo espeditente judicial batean ez zegoen segurtasun handiko erregimena justifikatu ahal zuen segurtasun-gorabehera bati buruzko aipamenik. Hasierako erabaki batek aurreko gertaera batzuetan modu baliagarrian oinarritu ahal bada, gerora egiten diren aldizkako berrikuspenek presoaren jokaeran eta espetxeko agintarien esperientzian oinarrituta egon behar dute; ez zen horrela izan. Oraindik zigortu ez diren beste delituak kontuan hartzea errugabetasun-presuntzioaren kontra doa. Halaber, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak adierazi du, arbitrariotasuna saiheste aldera,

giltzaperatuak nolabait parte hartu behar duela segurtasun-erregimena aplikatzeari buruzko erabakiak hartzeko prozesuan. Kasu honetan, erabakien berri ere ez zitzaion eman giltzaperatuari. Gainera, segurtasun-erregimenari buruzko erabakiak berraztertzeko eta kaltea konpontzeko prozedurak eta baliabideak egon behar dira. Kasu honetan, ez zegoen halakorik. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren arabera, segurtasun handiko erregimena aplikatzea kasu honetan ez dator bat legearekin, GEEHren 8.2 artikulua eskatzen duen moduan.

5. [Normantowicz Poloniaren aurka](#), 2022ko martxoaren 17koa (demandaren zk.: 65196/16)

*Atzeratu zen ebakuntza bat behar duen espetxeratu; osasun-arazoak larriagotzea; osasunari lotutako baimena ukatzea*

GEEHren 3. artikulua (torturarik edo tratu edo zigor anker edo apalesgarririk ez jasateko eskubidea): urraketarik ez

Demandatzaileak diskoko hernia zuen, baita bizkarreko mina eragiten zioten beste arazo batzuk ere. Epilepsia-atakeak ere izan zituen eta zenbait diagnostiko: ziatika, ultzerak, harria giltzurrunean, hipertentsioa, gastritis kronikoa. Hainbat espetxe eta ospitaletan egon zen, eta diskoko herniako ebakuntzaren zain geratzen zen beti; ebakuntza programatu zen, baina ez zen egin, hainbat osasun-arazo zirela medio. Bere buruaz beste egiten saiatu zen behin, eta depresioa diagnostikatu zioten. Auzitegi batek bi aditu independenteren azterketa eskatu zuen, demandatzailea espetxean jarraitzeko moduan zegoen jakiteko. Adituek ebakuntza egitea gomendatu zuten, eta espetxean uztea ez zela presoaren bizitzarako edo osasunerako arriskutsua esan zuten. Horrez gain, demandatzaileak desgaitasun larri bat zuen, zainketak eskatzen zituena, baita beste pertsona baten laguntza ere, baina ofizialki ez zioten laguntzailerik esleitu. Espetxean zegoen bitartean, gurpil-aulkia behar izatera iritsi zen.

Demandatzaileak espetxetik ateratzeko baimenak eskatu zituen, osasun-egoera zela eta; auzitegi eskudunek ez zituzten bere eskaerak onartu.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak gogorarazi du GEEHren 3. artikulua ez duela esaten estatuek preso gaixo bat aske uzteko edo ospitale zibil batera eramateko betebeharrak orokorra dutenik; hala ere, hertsiki eskatzen du espetxean giza duintasunarekin bateragarriak diren baldintzak egotea eta osasun-arreta egokia eta beharrezkoa ematea. Osasun-egoera eta espetxean egotea bateragarriak diren ala ez ebaluatzeko, hiru parametro daude: pertsonak duen gaitza; espetxeko osasun-arretaren egokitasuna; eta espetxean jarraitzea komeni den ala ez. Agintari eskudunek bermatu behar dituzte gaitzaren azterketa mediko erregularrak eta sistematikoak, baita estrategia terapeutiko bat ere, gaixoa sendatzeko edo larriagotzea saihesteko. Sintomak besterik gabe tratatzea ez da nahikoa. Desgaitasuna duten pertsonen dagokienez, espetxeko baldintzak beren beharrezkoak izan behar dira.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak egiaztatu du demandatzaileak espetxealdiaren zati handiena espetxeetako ospitale-ataletan igaro zuela, non bere osasun-beharrak tratatzen ziren. Ospitaleko atalean ez zegoenean, mediku-preskripzioaren arabera tratamendua eman zitzaion, ziegari, elikadurari eta medikazioari dagokienez. Medikuek hainbatetan gomendatu zuten ebakuntza inoiz egin ez bazen ere, ez zen agintari eskudunen ardurarik ezaren edo nahitako omisioen ondorioz. Izan ere, agintariak ahal zen guztietan ahaleginak egin zituzten preso ospitale zibil batean sartzeko, ebakuntza egin ziezaioten, eta diagnostikoa eta prestaketak egiteko prozedurak egitea ziurtatu zuten. Atzerapenak demandatzailearen osasun-arazo berriei lotuta zeuden. Gainera, demandatzaileak uko egin zien tratamendu jakin batzuei eta ebakuntza aurretiko analisiei. Gauzak horrela, GEEAren iritziz, gertatutako atzerapenak ezin zitzaizkien agintari eskudunei egotzi. Auzitegiaren arabera, ez da frogatu demandatzaileak, eguneroko jarduerak burutzeko, beste presoek laguntza behar duenik; gainera, beharrezko egokitzapenak egin ziren demandatzailearen behar bereziei erantzuteko.

Osasun-arazoengatik espetxetik irteteko eskaera ukatzeari dagokionez, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak uste du estatuko auzitegiek erantzun adierazgarria eta nahikoa eman zutela, aditu independenteek eta espetxeek egindako txostenetan eta demandatzailearen alegazioetan oinarrituta.

Lotutako beste epai batzuk: Kaprykowski Poloniaren aurka, 2009ko otsailaren 3koa (demandaren zk.: 23052/05); Sławomir Musiał Poloniaren aurka, 2009ko urtarrilaren 20koa (demandaren zk.: 28300/06); Orchowski Poloniaren aurka, 2009ko urriaren 13koa (demandaren zk.: 17885/04)

## Ijitoak/Etxebizitza

### GEEA

1. [Faulkner eta McDonagh Irlandaren aurka](#), 2022ko martxoaren 8koa (demanden zk.: 30391/18 eta 30416/18)

*Baimenik gabe bizitzeko asmoz, karabanak errepide baten ondoan jarrita, toki utzi behar izatea, bertan obrak egin behar zirelako*

GEEHren 8. artikulua (bizitza pribatua, familiakoa eta bizilekua errespetatzeko eskubidea): demanda onartezina

GEEAk gogorarazi du GEEHren 8. artikuluan agertzen den "bizileku" nozioa era autonomoan interpretatu behar dela. Toki jakin bat bizilekua izango da, baldin eta bertan bizi den pertsonak toki horrekin lotura jarraituak eta nahikoak mantentzen baditu. Gainera, toki batean bizi izatearen legezkotasunak edo legekontrakotasunak ez du eraginik leku bat pertsona baten "bizilekutzat" jotzeko orduan. Kasu honetan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak egiaztatu du demandatzaileak lau urte bizi zirela familiekin kokaleku horretan, eta seme-alabak inguruko ikastetxeetara joaten

zirela. Hortaz, karabanak jarri zituzten tokia beren bizilekua zen; beraz, toki hori uzteko agindua bizilekua errespetatzeko eskubidea eragozteko modutzat jo daiteke. Tokia uzteko agindu judiziala, udalerrri eskudunak eskatua, legearen araberakoa zen.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak onartzen du aginduaren bidez lortu nahi ziren helburuak legezkoak zirela: errepidea hobetuz, herrialdearen ongizate ekonomikoa lortzea, eta kokagunean bizi ziren pertsonen segurtasuna. Heinekotasunaren azterketari dagokionez, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak hainbat printzipio gogorarazi ditu:

- Politika sozial eta ekonomikoko gaietan, baita hirigintzako plangintzan ere, estatuak interpretaziorako tarte zabala daukate.
- Bestalde, interpretaziorako tarte estutu egiten da pertsonen bizitzarako funtsezkoak diren kontuetan, alegia, GEEHren 8. artikulua aipatzen dituen eta honako hauei dagozkien gaietan: nortasuna, autodeterminazioa, osotasun fisikoa eta morala, beste pertsonetako harremanak.
- Eragindako pertsonen interesak babesteko prozedura-bermeak egotea oso garrantzitsua da estatuak dagokion interpretaziorako tartearen mugan jardun duen ala ez ebazteko.
- Bizilekua galtzea GEEHren 8. artikuluari lotutako eragozpen larrietako bat da. Eragozte horren biktima izan daitekeen edozein pertsonaren eskura jarri behar da neurriaren heinekotasuna auzitegi independente batean aztertzeo aukera, GEEHren 8. artikuluko printzipioei jarraikiz, estatuko araudiaren arabera leku bat hartzeko legezko eskubiderik ez badu ere. Hala ere, leku bat hartzea legala izateak hobetzen du pertsonaren egoera eskubidea eragozten zaionean. Ordezko bizilekurik eskaini ezean, eragozpena larriagoa izango da; bestela, beste bizileku bat eskaintzen bada, zenbat eta egokiagoa izan, orduan eta arinagoa izango da eragozpena.

Bizimodu tradizional desberdina duen gutxiengoko kide izateak eragina izan dezake legeak aplikatzeko moduan. Ijitoak bezalako gutxiengo kalteberen edo sedentarioa ez den bizimodua daukaten gizataldeen kasuan, arau-markoan eta eragiten dieten banakako erabakietan, neurri batean kontuan hartu behar dira beren beharrak eta bizimodua.

Bestalde, GEEHren 8. artikulua ez du ematen agintari publikoetatik etxebizitza bat jasotzeko eskubidea, ezta toki jakin batean bizitzeko eskubidea ere. Etxebizitzaren arloan, estatuen betebeharrak positiboak –8. artikulutik datozenak– mugatuak dira.

Hizpide dugun kasuan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak egiaztatu du kokagunea lehenbailehen uztea agindu zuten agintari judizialek aztertu zituztela jokoan zeuden funtsezko interesak: demandatzaileek beste bizileku bat aurkitzeko aukerak; udalerrriaren galera ekonomiko larria, obrak atzeratuz gero; eta errepidea

hobetzeari lotutako interes publikoa. Printzipioz, planifikazioaren, politika ekonomiko eta sozialaren arrazoiak zirela medio, estatuak interpretaziorako tarte zabala zeukan. Demandatzaileak modu irregularrean hartutako lekuan bizi ziren eta, izan ere, beren keak ez zuen aipatzen bertan jarraitzeko eskubide hipotetikorik, lekua uzteko berehalakotasuna salatu zuten baizik. Larrialdiko bizilekua eskaini zitzaientzen, prozedura judizialak iraun bitartean eta amaitu ondoren, baina behin betiko konponbidea hainbat hilabete geroago eman zen. Azkenean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ondorioztatu du GEEHren 8. artikuluko eskubideak eragozteka kasu honetan ez zela neurritz kanpokoa izan eta estatuak interpretaziorako tartearen mugan jardun zuela.

## Genero-indarkeria

### GEEA

1. [A eta B Georgiaren aurka](#), 2022ko otsailaren 10ekoa (demandaren zk.: 73975/16)

*Polizia-agente baten zabarkeria genero-indarkeria prebenitzeko orduan eta agintarien pasibotasuna kasua ikertzean*

GEEHren 2. artikulua (bizitzeko eskubidea) GEEHren 14. artikuluari loturik (Hitzarmeneko eskubideez baliatzean diskriminatua ez izateko eskubidea): urraketa

Biktimak hainbat aldiz salatu zuen erasotzailea, zeinek, azkenean, biktima hil zuen eta hilketagatik kondenatua izan zen. Biktimaren amak eta semeak, hau da, demandatzaileek Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren aurrean, hilketa galarazi ez zuten segurtasun-indarren jarduna salatu zuten. Prozesu zibilean, 7.000 euroko konpentsazioa jaso zuten.

Salaketen aurrean, agintariek ez zuten egin inolako ahaleginik salatutako indarkeria-gertakariez arduratu ez ziren agenteen erantzukizunak ezartzeko. Ez zuten diziplina-espediterik ireki, eta agenteek ez zuten inolako prestakuntzarik jaso; halaber, ez zitzaientzen demandatzaileei erantzun, fiskaltzaren ekintzarik eza salatu zutenean.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren iritziz, derrigorrez ikertu behar zen agintariek genero-indarkeriari buruzko salaketei –biktimak aurkeztutakoei– eman zieten erantzuna, kontuan hartuta, batez ere, delitu-egilea polizia-agentea zela eta biktima mehatxatu zuela, zigorrik gabe geratuko zelakoan. Nahikoa da estatuak betebeharrak positiboak GEEHren 2. artikuluari jarraikiz bete ez zituela ondorioztatzeko.

Gainera, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak uste du egileari kondena ezarri zion zigor arloko prozesuan ez zela aztertu generoagatiko diskriminazioak krimena egitean izan zuen eragina. Prozesu zibilean, halaber, ez zen aztertu ea biktimaren salaketekin erakutsitako tolerantzia genero-isuriak eragindakoa izan ahal zen. Era berean, ez zen aztertu ea beste agenteak ados jarri ziren lankide batek egindako delituak ikertzeko

orduan. Arrazoi horiek ere hartu dira kontuan, estatuak bere betebehar positiboak bete ez zituela esateko.

Genero-indarkeriaren egoerak erakusten zuen biktima arrisku hur-hurrekoan zegoela eta poliziak jakinaren gainean egon behar zuen; hala ere, ez zuen jardun edo modu desegokian jokatu zuen. Legedian aurreikusitako babes-neurrietako bat ere ez zen aplikatu; esanguratsua da, kontuan hartzen bada erasotzailea polizia-agentea zela eta biktimari egindako galdeketa parte hartzeko baimena eman ziotela; lanean mailaz igo zuten, gainera. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren arabera, estatuak bereziki zorrotzak izan behar dute beren segurtasun-agenteak ikertu eta zigortzeko orduan, edozein zigorgabetasun-zentzu eragozteko eta segurtasun-indarrekiko konfiantzari eusteko. GEEAren iritziz, kasuak erakusten du nola segurtasun-indarren jarrera pasiboak eta diskriminatzaileak, oro har, areago dezakeen emakumeen kontrako indarkeria, soilik emakumea izateagatik jasaten dena.

2. [Y eta beste batzuk Bulgariaren aurka](#), 2022ko martxoaren 22koa (demandaren zk.: 9077/18)

*Senarra genero-indarkeriagatik bederatzi hilabetetan behin baino gehiagotan salatu zuen eta, azkenik, senarrak hila bizia galdu zuen emakume bat babesik gabe uztea*

GEEHren 2. artikulua (bizitzeko eskubidea: urraketa)

GEEHren 14. artikulua (Hitzarmeneko eskubideei dagokienez, diskriminatua ez izateko eskubidea): urraketarik ez

Hildako emakumeak behin-behineko babes-agindu judiziala eskatu zuen; agindua hurrengo egunean jaso zuen, baina organo judizialak hainbat egun behar izan zuen aginduaren kopiak polizia-departamentuetara bidaltzeko. Gainera, agindua betearazteko eskumena duen departamentuak, besterik gabe, agindua espedientean sartu zuen eta ez zituen neurririk hartu senarra emakumearengana hurbiltzea saihesteko. Behin betiko babes-agindua, geroago emandakoa, poliziari jakinarazi ere ez zitzaion egin. Aurreko gertakarien aurrean, senarra galdekatzeko, zenbait egun behar izan zituen poliziak. Emakumeak hil aurreko egunean eta egun horretan bertan egin zituen larrialdi-deiek eta idazkiek ez zuten jaso erantzunik, ezta berehalako erreakziorik ere. Dei eta idazki horietan, senarrak babesteko agindua hautsi zuela jakinarazi zuen emakumeak.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak egiaztatu duenez, inoiz ez zen formalki ebaluatu arriskua, poliziak ezagutu zituen gertakarien ostean: kasu bakar batean ere ez zen ahaleginik egin senarraren geroko jokaera aurreikusteko. Edonola ere, ebaluazio informalak egin arren, ez lirateke autonomoak, proaktiboak eta sakonak izango, GEEAren jurisprudentziak eskatzen duen moduan. Ez zen egiaztapenik egin ez emakumeak senarrak arma bat zuela jakinarazi zuenean, ezta babesteko aginduari buruzko jakinarazpena jaso zenean ere.

Bestalde, jazarpen penalak egin ditzaketen agintari eskudunek bitan erabaki zuten prozesurik ez irekitzea, polizia emandako informazioa bakarrik oinarri hartuta. Kasuaz arduratu ziren bi fiskalen artean ez zegoen inolako koordinaziorik.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ondorioztatu duenez, arriskua egoki ebaluatuz gero, segurtasun-indarrak konturatuko ziren, seguruenik, senarra egiazko eta berehalako mehatxua zela biktimaren bizitzarentzat. Dirudienez, esku hartu zuten pertsonak ez zuten jaso etxeko indarkeriari buruzko prestakuntzarik, GEEAren jurisprudentziak besterik dioen arren.

Agintariak emakumea babesteko hartu ahal izan zituzten neurri guztietatik (emakumea hiltzeko erabili zen arma konfiskatzea, senarra atxilotzea, poliziaren babesa), babes judiziala ezartzeko aginduak baino ez ziren erabili, azkenik ondorioz sortu ez zutenak. Kasuari buruz egindako diziplinazko ikerketak ere gomendatu zuen diziplina-neurriak hartzea kasuan esku hartu gabe geratu ziren hainbat pertsonaren aurka. Horiek horrela, GEEHren 2. artikulua funtsean urratu dela ondorioztatu du Giza Eskubideen Europako Auzitegiak.

GEEAk egiaztatu duenez, Bulgarian, Europako Kontseilua osatzen duten estatu guztietan bezala, genero-indarkeriak batez ere emakumeei eragiten die. Egoera honetan, estatuari dagokio frogatzea zer neurri hartu dituen sexuari lotutako desabantaila erremediatzeko. Hala ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ezeztatu du onartu kasu honetan generoaren ondoriozko diskriminazioa, uste baitu Bulgariako legediak badituela beharrezko tresnak erantzuna emateko; gainera, ezin izan da frogatu agintariak, oro har, genero-indarkeriaren aurrean borondate ona erakusten dutenik edo emakumeei salaketak jartzeko asmoa kentzen dietenik. Berariazko kasu honetan, ez zuen antzeman joera misoginoaren zantzurik agintarien eta agenteen jardunean; horretarako, kontuan hartu zuen geroago egin zen diziplinazko ikerketa. Senarra giza hilketa larriagatik eta armak zilegi ez den moduan edukitzeagatik epaitu zuten, eta 13 urteko espetxe zigorra ezarri zioten laster. Bestalde, datu estatistikorik eza omisio larritzat jotzen da.

## LGBTI pertsonak

### GEEA

1. [Y Poloniaren aurka](#), 2022ko otsailaren 17koa (demandaren zk.: 74131/14)

*Generoa berresleitzeari buruzko aipamenik gabeko jaiotza-ziurtagiria jaso ezin izatea, ziurtagiri laburtuak eta nortasun-agiriekin berresleitutako generoa bakarrik adierazten duten arren*

GEEHren 8. artikulua (bizitza pribatua errespetatzeko eskubidea): urraketarik ez

Demandatzaileari generoa berresleitu zioten eta gizonezko generoa legez aitortu zioten. Jaiotza-agiri laburtuak berregokitutako generoa bakarrik aipatzen du, baina hitzez hitzeko ziurtagiriak berregokitzeari buruzko aipamena jasotzen du orri-bazterreko



oharrean. Demandatzaileak orri-bazterreko oharra ezabatzeko eta ziurtagiri berri bat (aipamenik gabe) egiteko eskaera aurkeztu zuen, baina eskaera gaitzetsi zuten.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia bat dator orri-bazterreko oharra umiliagarria izan daitekeela eta demandatzaileari sufrimendu mentala eragin ahal diola; hala ere, eguneroko bizitzan, ia egoera guztietan, bere nortasuna berregokitzea aipatzen ez duten eta, beraz, bere bizitzari buruzko datu hori jakinaraztera behartzen ez duten dokumentuen bidez egiazta dezake. Gainera, bere hitzez hitzeko jaiotza-ziurtagiria ez dago guztiek ikusteko moduan. Bestalde, generoa berresleitzeari buruzko aipamena beharrezkoa izan daiteke berresleipenaren aurreko egitateak frogatzeko. Azkenik, demandatzaileak ez zuen frogatu orri-bazterreko oharra mantentzeak ondorio nahikoa larririk ekarri izana. Hori dela eta, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ondorioztatu du estatuak ez zuela betebeharrak positiborik oharra kentzea edo aipamenik gabeko ziurtagiri berri bat jasotzea ahalbidetzen duen prozedura bat ezartzeko.

Lotutako epaiak: Christine Goodwin Erresuma Batuen aurka, 2002ko uztailaren 11koa (demandaren zk.: 28957/95); Hämäläinen Finlandiaren aurka, 2014ko uztailaren 16koa (demandaren zk.: 37359/09)

## Gardentasuna eta gobernantza ona

### GEEA

1. [Šeks Kroaziaren aurka](#), 2022ko otsailaren 3koa (demandaren zk.: 39325/20)

*Herrialdearen azkenaldiko historiako gertaera erabakigarri batzuei buruzko dokumentu sailkatuak eskuratzeko aukera ukatzea, estatuak segurtasuneko arazoak direla medio*

GEEHren 10. artikulua (informazio-askatasunerako eskubidea): urraketarik ez

Demandatzaileak errepublikaren presidentetzaren artxiboetara sartzeko eskaera aurkeztu zuen, historia liburu bat idazteko. Presidentetzak eskatutako dokumentuetatik 31 eman zizkion, baina ukatu zion beste 25 dokumenturen desklasifikazioa, estatuaren independentziari, integritateari eta segurtasunari kalte konponezina eragingo ziola argudiatuta. Jarritako errekurtsio judizialak ezetsi ziren.

Lehenik, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak deklaratu du aplikagarria dela GEEHren 10. artikulua, demandatzailea dokumentu horiek interes orokorreko informazioa zabaltzeko asmoz eskuratzen saiatzen zelako. Eskatutako informazioa, gainera, eskuratzeko moduan eta prestatuta zegoen.

Informazioa eskuratzeko eskaera ukatzea demandatzailearen eskubidean egindako esku-sartzea izan zen, legean aurreikusitakoa, estatuaren segurtasunaren eta integritatearen helburu legítimoak betetzeko. Ildo horretan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak aitortzen die estatuak interpretaziorako tarte zabal bat, beren

testuinguru partikularrean, segurtasun nazionalari zerk mehatxatzen dion erabaki dezaten. Alabaina, aldi berean, “segurtasun nazionala” edo “segurtasun publikoa” bezalako kontzeptuak modu murriztailean interpretatu behar dira, eta neurritz aplikatu, batez ere, giza eskubideak murrizteko oinarritzat hartzen direnean. Hortaz, murriztapen horiek ezartzeko prozesuek barnean hartu behar dituzte beharreko bermeak. Izan ere, eragindako pertsonak aukera izan behar du prozedura kontraesankor batean hartutako erabakiari buruz berrikuspen independentea eskatzeko.

Kasu honetan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak egiaztatu duenez, errepublikako presidentek hartu zuen informazioa ukatzeko erabakia, adituen batzorde batek emandako irizpena jasota; erabakia informazioa eskuratzeko Mandatariak (agintari independentea) eta auzitegiak (Konstituzio Auzitegia barne) berrikusi zuten, ukatutako dokumentuak ikusteko aukera izan ondoren. Hori dela eta, prozedurazko berme egokiak eman ziren. Gauzak horrela, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ondorioztatu du dokumentuak ukatzeko emandako arrazoiak garrantzitsuak eta nahikoak zirela; halaber, onartu egiten du, segurtasun nazionalaren arloan, agintari eskudunek emandako arrazoiak laburragoak izan daitezkeela beste egoera batzuetan baino, hain zuzen ere, dokumentuen sailkapenaren bidez babestu nahi den interesa zaintzeko. Hori dela eta, GEEAren iritziz, ukapena neurritzkoa zen.

Lotutako epaiak: Magyar Helsinki Bizottság Hungariaren aurka, 2016ko azaroaren 8koa, 18030/11

### Haurrak/Atzerritarrak

1. [N.B. eta beste batzuk, Frantziaren aurka](#), 2022ko martxoaren 31koa (demandaren zk.: 49775/20)

*Zortzi urteko haur baten eta bere gurasoen bi asteko atxiloteta administratiboa, deportatzeko asmoz, egokitu gabeko zentro batean*

GEEHren 3. artikulua (tortura, zigor eta tratu anker edo apalesgarririk ez jasateko eskubidea): urraketa

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak argitu duenez, haurra gurasoekin egoteak ez ditu agintariak libratzen haurra babesteko neurri egokiak hartzeko betebeharretik. Haurraren zaugarritasun bereziko egoera erabakigarria da eta garrantzitsuagoa da gurasoen egoera baino: egoera irregularrean dauden atzerritarrak izatea. Ildo horretan, haurraren adina da zaugarritasunaren adierazgarri argia.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak egiaztatu du, aurreko epai batean bezala, zentro horretan zeuden pertsonak zarata-eragozpenak jasaten dituztela, familiek intimitaterik ez dutela eta zentroaren ezaugarria bere segurtasun-dimentsioa dela. Gainera, haurra atxilotzeko aldia gehiegizkotzat jotzen da. Bere gurasoek deportatzeko hegaldia hartzeari uko egin izanak ezin du eraginik izan haurraren

egoeran. Kasua ezagutu zuten organo judizialek ez zuten behar bezala kontuan hartu haurraren interesa, ezarritako neurriak legezko mugak gainditu ez bazituen ere. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak erabaki du 14 egunez zentroan sartzea GEEHren 3. artikulua eskatzen duen larritasun mailako tratua zela haurrarentzat.

Antzeko beste epai batzuk: A.B. eta beste batzuk Frantziaren aurka, 2016ko uztailaren 12koa (demandaren zk.: 11593/12; A.M. eta beste batzuk Frantziaren aurka, 2021eko uztailaren 22koa (demandaren zk.: 57035/18).

## Haurrak

1. [D.M. eta N. Italiaren aurka](#), 2022ko urtarrilaren 20koa (demandaren zk.: 60083/19)

*Neska bat adoptagarritzat jotzea, kontuan izan gabe amarekiko harremana mantentzeko beharra, ama genero-indarkeriaren biktima den eta zaurgarritasun-egoeran dagoen pertsona izanik*

GEEHren 8. artikulua (familia-bizitza errespetatzeko eskubidea): urraketa

Ama-alabak familia-zentro batean sartu ziren, senarraren/aitaren partez genero-indarkeriako bi gertaera jasan ondoren. Amak bilakaera positiboa zuen: lana aurkitu zuen, etxeko lanak ondo egiten zituela erakutsi zuen eta beste bikotekide bat ezagutu zuen (geroago, pertsona horrekin ezkondu zen eta babes-neurri baten xede ez zen beste haur bat izan zuen). Hala ere, gizarte-zerbitzuek zenbait txosten egin zituzten, desegokiak iruditu zitzaizkien ohitura batzuk aipatuta: neskatxoaren elikadura, telefono mugikorraren eta telebistaren erabilera, lanean egon bitartean, alaba "gomendagarria ez den" auzo bateko lagunekin uztea. Txostenek ama eta alabaren arteko harreman estua aipatzen zuten arren, gizarte-zerbitzuek neskatxoa harrera-familia batean uzteko eskatu zuten. Une hartan, alaba erakunde batera eraman zuten. Geroago, amari buruzko beste txosten batzuetan, hirugarren batzuek aipatu zituzten neska amaren sexu-abusuak jasaten zituela, eta emakumeak metodo antikontzeptiboak erabiltzeari utzi ziola, berriro haurdun geratzeko asmoz, beste haur bat aurrera ateratzeko aukera errealez kezkatu gabe. Auzitegiek alaba adoptatzeko moduan zegoela deklaratu zuten, etorkizunean adoptatzeko asmoz zegoen harrera-familia bati esleitu zuten eta eten egin zuten amaren guraso-ahala. Amaren eta alabaren arteko bisitak ere bertan behera utzi zituzten. Kontuan izan zituzten amaren bizimodu ezegonkorra, tratu txarra ematen zion gizon batekiko harremana, bere beste amodio- eta sexu-harreman batzuk, eta alabaren beharrak lehenesten ez zituela erabaki zuten. Auzitegi batzuen arabera, amak inoiz ez zituen berreskuratuko guraso-gaitasunak; besteek, aldiz, iritzi zuten inoiz berreskuratuko zituela, baina denbora luzea beharko zuela ustez, neskaaren interesaren alde, hobe zela adopzioan ematea.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak egiaztatu du amaren eta alabaren familia-bizitzarako eskubidean esku-sartze hori aurreikusita zegoela Italiako legean, eta

alabaren eskubideak babestea zuela legezko helburu. Hortaz, azterketa egitean, neurriaren heinekotasunean jarri du arreta. Gogorarazi du seme-alabak gurasoengandik banantzeko neurriak hartzen dituen agintari guztiek ahaleginak egin behar dituztela familia ahal bezain laster elkartzeko. Aldi baterako edozein babes-neurrik familia elkartzea izan behar du helburu. Seme-alaben eta gurasoen interesen artean gatazka sortzen denean, agintariei dagokie oreka aurkitzea, betiere haurren interes gorenaren bereziki kontuan hartuta. Familiako lotura salbuespenezko egoeretan baino ezin da hautsi. Haur bat bere heziketarako egokiagoa den ingurune batean egoteko aukera ez da nahikoa bere gurasoengandik banantzeko.

Kasu honetan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak egiaztatu du guraso-gaitasunak ez zirela seriotasunez ebaluatu familiako lotura hausteko erabakia hartu aurretik: ez zen azterketa psikologikorik egin, eta ez zen bilatu lotura mantentzea ahalbidetuko zuen ordezkoko neurri bat. Amari ez zitzaion eman alabarekiko harremana berreskuratzeko laguntzarik edo aukerarik. Amari dagokionez, sexu-abusuaren zantzuak ez ziren egiaztatu, ez ziren ikertu, eta ez zen ireki gai horri buruzko instrukzio penalik. Amak ez zuen aukerarik gizarte-zerbitzuen txostenen aurka egiteko. Halaber, ez zen justifikatu zergatik hautatu zen neurri gogorrena, ezta neurri horrek neskaren interesa hobeto babesteko modua ere.

Horiek horrela, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ondorioztatu du neska adopzioan emateko moduan zegoela adierazteko arrazoiak ez zirela nahikoak eta prozeduretan ez zirela eman beharrezko bermeak. Hori dela eta, GEEHren 8. artikulua urratu dela adierazi du.

2. [A.L. eta beste batzuk Norvegiaren aurka](#), 2022ko urtarrilaren 20koa (demandaren zk.: 45889/18)

*Gehiegi mugatzea gurasoen eskubideak, harrera-familia batean utzitako alaba bisitatzeko*

GEEHren 8. artikulua (familia-bizitzarako eskubidea): urraketa

Norvegiako auzitegiak erabaki zuen gurasoen bisitak neskaren garapena kaltetzen zuen estres-faktore bat zirela, gurasoek gaitasun gutxi eta sentiberatasun gutxi zutelako. Urtean hiru aldiz ordubeteko bisita bat egitea agindu zuen, eta harrera-familiaren helbidea eta datuak isilpean mantendu zituen, gurasoei jakinarazi gabe.

Kontaktuak murrizteko neurria legearekin bat hartu zen, alabaren osasuna eta eskubideak babesteko legezko helburuz. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak neurrizkoa ote zen aztertu du. Horretarako aztertu du ea neurria justifikatzeko emandako arrazoiak garrantzitsuak eta nahikoak diren, eta ea neurria bete nahi den helburuaren arabera den.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak gogorarazi du kontaktua mugatzea, batez ere, hainbesterakoa denean, oro har, bateraezina dela aldi baterako babes-neurrien bidez bete nahi den helburuarekin: gurasoak eta seme-alabak elkartzea (balidin eta elkartze

hori haurraren interes gorenarekin bat ez datorrela ondorioztatzen bada). Hala ere, kasu honetan, auzitegi eskudunek batez ere harrera iraunaraztea hartu zuten oinarri eta gurasoekin egoteak harrera-familiarekin sortzen zen lotura oztopatzea saihesteko moduan zehaztu zituzten bisita egiteko eskubideak. Horiek horrela, kontaktua mugatzea justifikatzeko arrazoiak ez ziren adierazgarriak, ezta nahikoak ere. Hori dela eta, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak GEEHren 8. artikulua urratu zela adierazi du.

Antzeko beste epai batzuk: Strand Lobben eta beste batzuk Norvegiaren aurka, 2019ko irailaren 10ekoa (demandaren zk.: 37283/13); K.O. eta V.M. Norvegiaren aurka, 2019ko azaroaren 19koa (demandaren zk.: 64808/16); A. S. Norvegiaren aurka, 2019ko abenduaren 17koa (demandaren zk.: 60371/15); Pedersen eta beste batzuk Norvegiaren aurka, 2020ko martxoaren 10ekoa (demandaren zk.: 39710/15)

3. [A.M. Norvegiaren aurka](#), 2022ko martxoaren 24koa (demandaren zk.: 30254/18)

- GEEHren 8. artikulua (familia-bizitzarako eskubidea): urraketarik ez

*Hurdunaldi subrogatu bidez jaiotako haur baten intentzizko ama (biologikoa ez den ama) agintariak amatzat hartu nahi ez izatea; aita biologikoaren baimenik gabe adoptatu ezin izatea. Ondorioz, haurra ikusi ezin izatea.*

Intentzizko amak eta aita biologikoak ez zuten adostasunik lortu bisita-eskubideei dagokienez. Une jakin batean, aita biologikoak erabaki zuen intentzizko amak ez zuela haurraren harremanik izango; izan ere, intentzizko amak ez du haurraren Norvegiar lege onartuta dagoen loturarik. Norvegiako agintarientzat, aita biologikoa eta Estatu Batuetan umea izan zuen emakumea ziren gurasoak. Haurra intentzizko amak adoptatu nahi izanez gero, aita biologikoren baimena beharko zuen. Amatasuna aitortzeko eta adopzioa eratzeko demandak, demandatzaileak jarritakoak, ezetsi ziren auzitegietan.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren iritziz, intentzizko gurasoen gurasotasuna ez onartzea familia-bizitzarako eskubidea eragoztekoa da. Kasu honetan, eragozpen hori Norvegiako legediari jarraikiz gertatu zen, eta haurraren eskubideak babesteko eta delituak prebenitzeko, haurduntza subrogatua delitua baita Norvegiar.

GEEAk, beste kasu batzuetan bezala, ez du ikusten arazorik Norvegiako legediari dagokionez; izan ere, legedi horrek debekatzen du haurduntza subrogatua eta ez du onartzen intentzizko gurasoen gurasotasuna. Arau horien helburua, besteak beste, emakumeak esplotazioaren aurka babestea zen. Demandatzailearen haurraren harremana eteteari dagokionez, aita biologikoaren erabakiz, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren arabera, ez da estatuari egozteko modukoa; halaber, GEEAk babesten ditu Norvegiak gai horri buruz eman zituen ebazpen judizialak, gatazkan dauden eskubide eta interesak sakonki aztertu zituztelako. Gainera, Norvegiako legedia argia zen demandatzaileak eta aita biologikoak subrogazioari buruzko

kontratua sinatu zutenean, aita biologikoa iritziz aldatuko zela une hartan aurreikusterik ez bazegoen ere. Hori dela eta, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren arabera, GEEHren 8. artikulua ez zen urratu.

## Hirigintza

1. [Rüşan Uysal Turkiaren aurka](#), 2022ko martxoaren 8koa (demandaren zk.: 44502/14)
- GEEHren 1. Protokoloaren 1. artikulua (ondasunez bakean goatzeko eskubidea): urraketa

### *Lur-eremu bat desjabetzea eta okupatzea, konpentsaziorik gabe*

Demandatzaileak lursail bat erosi zuen Istanbulgo auzo batean. Lursailaren zati bat bizitegi gune gisa sailkatuta zegoen; beste zatia, aldiz, errepide bat eraikitzeke, berdeguneak jartzeko eta erreka bat babesteko erreserbatuta zegoen. Handik gutxira, administrazio eskudunak lurraren zati horiek desjabetzea erabaki zuen; jabeak adostu zuen prezio sinboliko batean salduko zituela (5 euro), baina, horren truke, bere jabetzan geratzen zen gainerako lurra gasolina-zerbitzugune gisa birsailkatzeke eskatu zuen. Hala ere, udalak ukatu zuen birsailkatzea. Orduan, demandatzaileak jarduketak abiarazi zituen desjabetutakoa berreskuratzeko eta, modu subsidiarioan, kalte-ordaina jasotzeko. Auzitegiek kalte-ordaina ukatu zioten, kalte-ordainik gabe lagatako lurra hirigintzako plangintzaren kostuetan parte-hartzea zela argudiatuta. Parte-hartze hori lursaila dagoen gunearen hirigintzako plangintzak sortu zuen lursail baten balioaren igoera ordaintzeko da, eta, ondorioz, lursail hori eraikitzeke hiri-lurzoru bihurtzen da.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak aztertu du esku-sartzea demandatzailearen jabetza-eskubidean, bere jabetzaz gabetzea dela eta, beraz, zenbait baldintza bete behar dituela iritzita. Demandatzaileak administrazioarekin ustez egindako ituna (lurraren zati bat doan lagatzeko, gainerako zatia birsailkatzearen truke) frogatu ez bazuen ere, estatuko auzitegiek ere ez zuten hartu lurra lagatzea debaldeko dohaintzatzat. Era berean, ez zuten desjabetze formal eta legaltzat hartu, demandatzaileak kalte-ordainari uko eginda. Hortaz, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren iritziz, lurraren zatien jabetza administrazioaren alde eskualdatzearen azpian dagoen arrazoia lurren okupazioa zen, plangintzaren kostuetan parte-hartzearen kontura. Turkian indarrean dagoen legediari jarraikiz, horrelako eskualdaketak ez dakar kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik.

Hala ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak adierazi nahi du Turkiako legediaren arabera, horrelako okupazioa soilik gerta daitekeela, baldin eta lurraren planifikazioa egin bada. Kasu honetan, ez zegoen planifikaziorik, ezta kostuetan parte-hartzearen konturako okupazioa egiteko erabakirik ere. GEEAk ez du aurkitu Turkiako legedian geroago egingo den plangintzaren kostuetan parte-hartzearen konturako okupazioa baimentzen duen xedapenik: planifikazioa lehenago egin behar da. Ez zen

plangintzarik egin lur horiei dagokienez; hortaz, ez zen hiri-lurzoru bihurtu eta bere balioa ez zen igo; ondorioz, desjabetutako zatiaren galera ez zen konpentsatu. Hori dela eta, jabetzaz gabetzea ez zen egin legearekin bat datorren moduan, eta hori nahikoa da GEEHren 1. Protokoloaren 1. artikulua urratu zela deklaratzeko.

## Segurtasuna

1. [Gonçalves Monteiro, Portugalen aurka](#), 2022ko martxoaren 15ekoa (demandaren zk.: 65666/16)

GEEHren 2. artikulua (bizitzeko eskubidea): urraketarik ez / urraketa

*Poliziaren jarduera eskizofrenia eta bere buruaz beste egiteko joera duen pertsona bat desagertu zenean: pertsona bilatzeko hartutako neurriak egokiak ziren, baina desagerpenaren inguruabarrak ez ziren behar bezala ikertu*

Amak alaba azken aldiz ikusi zuenetik 24 ordura salatu zuen desagerpena; denboratarte horretan ez zuen bere berririk jaso. Aurreko egunean, eskolako txangora joateko bilgunean utzi izan zuen, baina azkenean alaba ez zen txangora joan. Amak aditzera eman zuen alabak osasun mentaleko arazoak zituela. Hurrengo egunetan zehar, jakinarazi zitzaion polizia judizialari neskak ez zuela bere medikazioa hartzen, eta horrek eragina izango zuela bere oreka mentalean; neskaren osasun mentalari buruzko xehetasun gehiago eman zen. Polizia judizialak fiskaltzari neskaren mugikorraren geolokalizazioa eskatu zion, desagerpena gertatu eta hiru egunera, eta fiskaltzak ikerketa bat ireki zuen. Ondorengo egun eta hilabeteetan, geolokalizazioaren eta egindako deien datuak jaso ziren, neska ikusi izan zuten pertsona batzuek aipatutako beste batzuei galdeketa egin zitzairen, auzitegiko medikuntzako institutuekin eta ospitaleekin harremanetan jarri zen, bilaketak antolatu ziren. Hainbat hilabete geroago, elkarrizketa batean, neskaren psikiatrak esan zion polizia judizialari oso litekeena zela neskak bere buruaz beste egin zuela, bere patologia mentala kontuan hartuz gero.

Urtebete geroago fiskaltzak ondorioztatu zuen ez zegoela arrazoirik desagerpenaren kausa kriminala izan zela pentsatzeko, eta bilatzen jarraitzea agindu zuen. Ikerketa urgente gisa sailkatu zen, neska desagertu eta hiru urte geroago eta ikerketa gehiago egin ziren; berriro ere, neskak bere buruaz beste egiteari buruzko hipotesia oso litekeena zela ondorioztatu zen. Polizia judizialaren txosten batek, desagerpena gertatu eta ia sei urte geroago idatzitakoak, aipatu zuen 31 pertsonari egin zitzaizela galdeketa eta 21 bilaketa antolatu zirela; txostenaren arabera, ez zegoen elementurik delitu bat egin zela pentsatzeko. Bi urte geroago, ikerketa itxi egin zen, suizidioa edo istripu hilgarri bat gertatzeko aukera aipatuta.

Bien bitartean, aitak, alaba desagertu eta hiru urte geroago, ondare-erantzukizuneko demanda aurkeztu zuen, ikerketaren atzerapena eta gabeziak salatzen; hiru instantzia judizialak gaitzetsi zuten erreklamazioa.



Giza Eskubideen Europako Auzitegiak gogorarazi duenez, desagertzea gertatu zen unean neska agintari publikoen ardurapean ez bazegoen ere, horrek ez du esan nahi GEEHren 2. artikulua aplikagarria ez denik. Osasun mentaleko arazoak zirela medio, neskaren bizitza benetan berehalako arriskuan zegoen, bere arazo psikologikoak eta desagertu zen unetik medikaziorik gabe egotea kontuan hartuta.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak GEEHren 2. artikulua (estatuaren betebeharra, bizitza babesteko) ikuspuntu materialetik aztertu ditu neska aurkitzeko egin ziren jarduketak; eta prozeduraren ikuspuntutik (ikerketa eraginkorra egiteko betebeharra), ustezko heriotzaren inguruabarrak zehazteko egindako jarduketak.

GEEAren arabera, agintari eskudunek egoera horren berri (neskaren bizitza berehalako arrisku errealean zegoela) gurasoek desagerpena salatu eta hurrengo egunean jaso zuten; izan ere, une hartan eman zitzaien informazio xehatua neskaren osasun mentalaren egoerari eta medikaziorik ezari buruz. Ordurako, jarrita zegoen alerta bat, bai segurtasun-indarrak abisatzeko, baita Schengengo SIS sisteman adierazteko ere. Hurrengo egunetan, geolokalizazio-datuak eta deiei buruzko datuak jaso ziren, segurtasun-kameretako irudiak aztertu ziren, pertsonen galdaketak egin zitzaizkien eta bilketak burutu ziren, jasotako pistak erabiliz. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren iritziz, jarduketa horiek egokiak ziren neska bizirik topatzeko helburua betetzeko. Hortaz, agintariek bete zituzten GEEHren 2. artikulua alde materialak ezartzen dizkien betebeharrak.

GEEHren 2. artikulua prozedurazko alderdiari lotutako ikertzeko betebeharrari dagokionez, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak adierazi du desagerpenen kasuan, betebeharrak horrek pertsona non dagoen jakin arte jarraitzen duela indarrean. Ikerketarik eza GEEHren 2. artikulua urraketa jarraitutzat joko da, pertsona desagertua hilda dagoelako susmoa sortu ahal bada ere. Ikerketa eraginkorraren irizpideak honako hauek dira: ikerketa-metodoen egokitasuna, arintasuna, senideen parte-hartzea eta independentzia.

Hizpide dugun kasuan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak hainbat akats antzeman ditu: Polizia judizialak hasieran ez zituen behar bezala aprobetxatu geolokalizazio-datuak; hiru urte geroago hasi zen datu horiek erabiltzen. Handik aurrera, lau urte geroago, mugikorraren azken seinalea eman zen tokiaren baldintza meteorologikoak ikertzen hasi ziren. Familiakoei egin beharreko galdeketak hiru urte geroago egin ziren, eta neskaren ordenagailua eta logela are beranduago miatu ziren. Ikerketa ez zen sakona eta zehatza, neskaren desagerpenetik hiru urte igaro arte. Atzerapen horrek zaildu zuen desagerpenaren inguruabarrak argitzea ahalbidetuko zuten frogak jasotzea. Hori dela eta, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ondorioztatu du ez zirela bete GEEHren 2. artikulua ezarritako eskakizunak, prozedurari dagokionez.

Lotutako beste epai batzuk: Dodov Bulgariaren aurka, 2008ko urtarrilaren 17koa (demandaren zk.: 59548/00)



## IV. COVID-19arekin LOTUTAKO EPAIAK (GEEA)

### Haurrak

1. [Q eta R Esloveniaren aurka](#), 2022ko otsailaren 8koa (demandaren zk.: 19938/20)

*Biloba baten zaintza ezartzeko prozedurak gehiegi luzatzea (sei urte eta bukatu gabe), COVID-19aren pandemia dela eta hartutako neurriekin justifikatzen ez dena. Haurrei prozesu judizialean eman beharreko entzunaldia ez egitea*

GEEHren 6.1 artikulua (bidezko epaiketa arrazoizko epean izateko eskubidea): urraketa

GEEHren 8. artikulua (bizitza pribatua eta familiakoa errespetatzeko eskubidea): urraketarik ez

Haurrak senarrak hil zuen emakume baten seme-alabak ziren. Amaren aldeko aitona-amonekin hilabete batzuk egon ondoren, gizarte-zerbitzuek familia-harreran jarri zituzten haurrak, herrialdeko beste toki batean. Aitona-amonak haien zaintza eskatu zuten. Giza Eskubideen Europako Auzitegira jotzeko unean, zaintza esleitzeko prozedura judizialak sei urte zeramatzan ebatzi gabe.

GEEAk ez du atzerapena justifika dezakeen inguruabarrik ikusi. Pandemiaren ezarritako murrizketen ondorioz, logikoa denez, atzeratu ziren organo judizialean kasuak izapidetzeko prozedurak, baina kasu honetan ez dira nahikoak estatua erantzukizunetik libratzeko. Izan ere, pandemiak iraun bitartean, kasuaren izapideak aurrera egin zuen eta premia kotzat jo zen. Gaiaren garrantziak bereziki azkar jardutea eskatu zien agintariei, batez ere, igarotzen den denborak amonaren eta biloben arteko harremanean duen eragina kontuan hartuta. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak GEEHren 6.1 artikulua urratu zela ondorioztatu du.

Demandatzaileek salatu zuten, gainera, prozesu judizialean ez zela entzun haurren iritzia. GEEAk onargarriztat jotzen du, aditu gisa aritu zen haur-psikiatra baten iritzia jarraitu baitzion organo judizialak. Psikiatrak, haurrekin hitz egin ondoren, ondorioztatu zuen ez zutela heldutasunik iritzi propioa izateko (5 eta 8 urte). Hortaz, ez da deklaratu GEEHren 8. artikularen urraketa.

### Espetxeratuak

1. [Fenech Maltaren aurka](#), 2022ko martxoaren 1ekoa (demandaren zk.: 19090/20)

*Espetxeko establezimendu batean COVID-19a zabaltzea prebenitzeko eta giltzurrun bat ez zuen demandatzailearen osasuna babesteko hartutako neurriak*

GEEHren 2. artikulua (bizitzeko eskubidea) demanda onartezina

GEEHren 3. artikulua (tortura, zigor eta tratu anker edo apalesgarririk ez jasateko eskubidea): urraketarik ez

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ez du ontzat hartzen bizitzeko eskubidea urratuta geratu dela, SARS-CoV-2 birusaren eraginpean jartzeagatik. GEEHren 2. artikulua aplikagarria izan dadin, demandatzaileak frogatu behar du bere bizitza benetako eta berehalako arriskuan zegoela estatuaren ekintza baten edo ekintzarik ezaren ondorioz. Kasu honetan, demandatzailea ez zen kutsatu, eta 2021eko apiriletik aurrera txertoa jartzeko aukera zuen. Ez zuen frogatu bere egoera pertsonala (giltzurrun baten falta, 40 urte baino zerbait gehiago) kontuan hartuta, COVID-19aren ondorioz hiltzeko ziurtasun maila bat edo probabilitate handi bat zuela, gaixotasunaz kutsatuz gero. Hortaz, kasu honetan, GEEHren 2. artikulua ez da aplikagarria eta demandaren zati hori onartezintzat jotzen da.

GEEHren 3. artikuluari dagokionez, COVID-19aren larritasuna eta kutsatzeko erraztasuna kontuan izanik, agintari publikoek kutsatzea saihesteko neurriak hartzeko eta –kutsatzea gertatuz gero– osasun-arreta egokia emateko betebeharra zutela erabaki du Giza Eskubideen Europako Auzitegiak. Prebentziozko neurriak arriskuaren arabera izan behar ziren, agintari eskudunentzat gehiegizko zama bihurtu gabe, espetxealdiaren baldintzak kontuan hartuta.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia bat dator Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioekin: birusa espetxeetan sartzeari saihestu, barruan hedatzea mugatu, eta espetxeak birusa kanpora hedatzen duten gune bihurtzea saihestu. Halaber, esan du, birusak izan dituen aldaketen ondorioz eta hari buruzko ezagutza zientifikoa hobetuz joan zenez, gobernuek hartutako neurriak aldatuz zihoan egoerara egokitzen joan beharra zuten.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak aztertu egin du demandatzailearen espetxean COVID-19ari emandako erantzuna. Egiaztatu duenez, zentro horretan ez dago gehiegizko populaziorik eta agintariek oso neurri egokiak hartu dituzte: bisitak bertan behera uztea, langileak txandakatzea, higiene-neurriak, instalazio batzuk ixtea (gimnasioa, kaperak), PCR testak, txertoak ahalik eta azkarren jartzeko aukera. Hortaz, GEEAren iritziz, ez zegoen beharrik behin-behineko espetxe-zigorraren ordezkotako neurriak aztertzeko. Bisitei dagokienez, ordezkotako komunikabideak gaitu ziren, hala nola telefono-deiak eta bideodeiak.

Demandatzailearen egoera partikularrari dagokionez, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren iritziz, ez zuen frogatu talde zaugarrienekoa zenik. Halaber, ez zuen frogatu kutsatutako pertsonekin egon behar izan zuenik. Hainbat presok gela berean egoteak eta mediku- eta osasun-instalazio berberak eta jantoki bera erabiltzeak ez du GEEAren zalantzarik sortzen, GEEHren 3. artikuluari dagokionez. Gainera, omikron aldaeraren bilakaera ikusita, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren arabera, ez litzateke errealista izango pentsatzea preso batek inoiz ez duela topatuko kutsatutako pertsona bat; batez ere, neurri batzuk (adibidez, bisitak etenda egotea)

arrazoizkoa denaren barruan beharrezkoak direnean soilik mantendu ahal direla kontuan hartuta.

Hori dela eta, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ondorioztatu du hartu ziren neurriak egoeraren arabekoak eta egokiak zirela; ezin da pentsatu agintariek demandatzailearen osasuna babesteko betebeharra bete ez zutenik, edota, ondorioz, demandatzailea GEEHren 3. artikulua aplikatzeko moduko kalte larriak jasateko arriskuan zegoenik. Azpimarratu du COVID-19a salbuespenezko eta ustekabeko egoera zela, eta demandatzailea bezalako pertsona askok mundu osoan jasan behar izan zutela; izan ere, ondorio are larriagoak izan zitezkeen osasunean, gizartean, ekonomian, estatuaren funtzionamenduan eta bizitzan, oro har.

Lotutako beste ebazpen batzuk: Fenech Maltaren aurka, 2021eko martxoaren 23ko autoa (demandaren zk.: 19090/20); Terheş Errumaniaren aurka, 2021eko apirilaren 13ko autoa (demandaren zk.: 49933/20); Ünsal eta Timtik Turkiaren aurka, 2021eko ekainaren 8ko autoa (demandaren zk.: 36331/20)

## Segurtasuna

1. [Communauté genevoise d'action syndicale \(CGAS\)](#) Suitzaren aurka, 2022ko martxoaren 15ekoa (demandaren zk.: 21881/20)

- GEEHren 11. artikulua (bilera-askatasunerako eskubidea): urraketa

*Pandemiaren lehenengo hilabeteetan bi hilabete eta erdiz manifestaldiak egiteko debeku orokorra, bestela zehapen penala ezarrita, heinekotasunaren kontrol judizialik gabe*

2020ko martxoan, Suitzako gobernu federalak jendaurreko bilera eta manifestazio oro debekatu zituen. Debekua bi hilabete eta erdiz egon zen indarrean. Debeku hori urratzen zuenarentzat isun zigorrak eta hiru urtera arteko askatasun gabetzea aurreikusi ziren. Ginebrako sindikatu batek debeku hori errekurritu zuen Suitzako auzitegien aurrean, baina errekurtsioak ukatu zirenez, Giza Eskubideen Europako Auzitegira jo zuen, eta alegatu zuen batzeko askatasunerako eskubidearen urraketa bat zela.

Europako Auzitegiak bere Epaian aitortu zuen pandemiaren hasieran oso gutxi genekiela birusaren ezaugarriak eta arriskuak buruz. Estatuak arin jardun behar zuten bizi eskubideak eta herritarren osotasun fisikoa babesteko. Nolanahi ere, Suitzan bilerak eta manifestazioak debekatzea neurri orokorra eta gehiegizkoa izan zen, eta hori justifikatzeko arrazoi sendoak behar ziren, baita jokoan zeuden eskubide guztiak aintzat hartzea ere. Auzitegiak onartu du, pandemiaren inguruabarretan, ezin zela espero neurri horren inguruan jendaurreko edo parlamentuko debaterik egitea, baina bai gutxienez, kontrol judizial zorrotza. Eta ez zen kontrolik egin. Debekua ez betetzeagatik ezarriko ziren zigorrei dagokienez, Giza Eskubideen Europako

Auzitegiak oso gogorrak zirela adierazi zuen, batzeko eta manifestatzeko askatasunerako eskubidea baliatzerakoan etsipena eragiteko bezain gogorrak.

Batzeko askatasunerako eskubidearen garrantzia aintzat hartuta, oro har, eta debekuaren eta zigorren gogortasunaren salbuespenik gabe, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren ustez batzeko askatasunerako eskubidea ez zegoen arrazoituta eta eskubide hori urratu zela aitortu zuen.





Arreta zuzeneko bulegoak

Araban

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz  
Tel.: 945 13 51 18 • Faxa: 945 13 51 02

Bizkaian

Albia eraikina. San Bizente, 8 – 11.a  
48001 Bilbo  
Tel.: 944 23 44 09

Gipuzkoan

Arrasate. 19, 1.a  
20005 Donostia - San Sebastián  
Tel.: 943 42 08 88